

Barrena

ZIENTZIAREN DIBULGAZIOA

Tokiko zientzialarien lana, argitara

Zientzia kultura orokorraren parte dela erakusteko sei hitzaldi izango dira, Debako Kultur Elkarteak maiatzerako antolatutako Baso Bete Zientzia ekimenaren baitan / 2

ARABAKO IKASTOLEN ALDEKO JAIA

"Arabian euskara sustatzeko behar handia dago, eta denon ekarpena da beharrezkoa"

Marisabel Aizpurua elgoibartarra da ekainaren 14an Amurrión egingo duten Araba Euskaraz iragartzeko bideoklipeko protagonista / 7



'TAUPADAK BERPIZTU' BIDEOKLIPETIK HARTUA



Mundu bat dantzan

Dantzaren Nazioarteko Egunaren harira, aste osoan izan dira dantza emanaldiak eta jaialdiak; Ermuko dantza taldeek joan den barikuan egin zuten saio berezia, kasurako / 13

Dantzariak, ahalegin betean, Ermuko Merkatu Plaza bete lagunen aurrean. ANDER GOMEZ

MUSIKA

"Oso esperientzia berezia izango da SoraFolk egun-pasa egiteko" / 17

Arkaitz Miner Musikaria



ARKAITZ MINER

KIROLA

Udaberrikoparen barruan, Bizkai osoko txirrindulari gaztetxoak hartuko ditu bihar, barikua, Ermuak / 12

EUSKARA

Euskaraz bizitzeko beharrezko diren baldintzak eskatuko ditu Kontseiluak ekainaren 13an / 3

Meka
Lanbide Eskola

**Hazi, hezi,
Mekan ikasi!**

LANBIDE HEZIKETAKO ESKAINTZA

**ATE IREKIAK
MAIATZAK 13**

* Eman izena www.meka.eus web orrian

AURREMATRIKULA
Maiatzaren 4tik 22ra

www.meka.eus



Tokiko zientzialarien jakintza eta jarduna, lehen lerrora, hirugarren urtez jarraian

Maiatzaren 7tik 21era bitartean, Baso Bete Zientzia topaketak egingo dira Deban

Izaro Aulestiarte DEBABARRENA

Baso Bete Zientzia jardunaldiak egingo dituzte maiatzaren 7tik 21era Deban, Kultur Elkartearen, tokiko zientzialarien lana lehen lerrora ekarrita. Publiko orokorrari zuzendutako sei hitzaldi labur antolatu dituzte, hiru egunetan banatuta, eta pintxo-potea eskainiko dute guztietan.

Hasierako helburuei eusten die Debako Kultur Elkartearen ekimenez antolatutako solasaldi zikloak. Izan ere, zientzia herritarrena ere bada, baina, batzuetan, kosta egiten da ikusaraztea ez dagoela gizartetik bereizita. Eta gako dibulgazioan dagoela uste dute Baso Bete Zientzia egitasmoaren ardura-dunek. Helburu horrekin antolatu dituzte aurten ere jardunaldiak, "zientzia kultura orokorraren parte dela erakusteko beharrezkoak" direla iritzita.



Kultur Elkarteko aretoa, lepo beteta, iazko jardunaldietan. ALEX TURRILLAS

Herritarrek zientzia-munduan egiten duten lana ezagutarazteko eta Debabarrenean ere zientziarekiko interesa pizteko asmotan prestatu dute egitaraua. Hitzordu bakoitzean zientzialariak izango dira protagonista,

eta ezagun duten lan edo ikasketak arloarekin lotutako kontuez ariko dira, euskaraz. Zabala da adituek hizpide izango dituzten gaien zerrenda: homeopatia, digitalizazioa eta adimen artifiziala mantentze-lanetan, robo-

tika, entzumena, kriptografia, immunologia...

Antolatzaileek azaldu dute solasaldi laburrak izango direla, hogei bat minutukoak. Egun bakoitzean bi hizlari izango dira, eta hitzaldi bakoitzaren ondoren galderak egiteko eta eztabaidarako tartea utziko dute. Saioen artean pintxo-potea izango da aukeran, "giroa erlaxatzeko". Nolanahi ere, solasaldiak "entretengarriak eta denok ulertzeko modukoak" izango direla nabarmendu dute. Eta, hortaz, herritar guztiei saioetara bertaratzeko dei egin diete.

Sei hitzaldi, hiru ostegunetan

Ibon Aranberri (Eibar, 1974) Kimikan doktorearen eta Egoitz Konde (Deba, 1979) ingeniari industrialaren hitzaldiekin abiatuko da egitaraua, maiatzaren 7an, 19:00etan; *Homeopatia: molekularik gabeko sendagaia begi kritikoa. Kimikaren eta zientziaren ikuspegitik funtzionatu al dezake?* izenburupean ariko da lehenengoa, eta Kondek, aldiz, *Digitalizazioa eta adimen artifiziala mantentze-lanetan. Bonbilla bat aldatzetik turbina o-*

likoen mantentze-lanak noiz egin behar diren jakiteko pausoak gaiari helduko dio agertokian.

Astebete geroago, hilaren 14an, Eneko Ugalde (Deba, 1971) eta Ane Arrizabalaga (Deba, 2000) izango dira gonbidatuak. Ugalde Ingeiniari elektronikoa da, eta robotikaz mintzoko da Kultur Elkartearen: *Robotak eta gizakia: oraina eta etorkizuna. Nola islatzen da gure eguneroko bizitzan?* goiburupean. Ikerketa Biomedikoan doktoregai Arrizabalagaren kasuan, ostera, entzumena izango da solasaldien ardatz: *Entzun bai, baina nola? Entzumenaren sekretuak laborategiko begiradatik.*

Oso bestelakoak dira Baso Bete Zientziaren azken hitzorduko protagonistek landuko dituzten gaiak. 19:00etan hasita, Maialen Beristain (Deba, 2000) Matematikan doktoregaiak *Kriptografia. Sekretuen zientzia* izenburuko hitzaldia egingo du. Eta, haren ostean, Immunologian doktoregai Teresa Aceña (Deba, 2001) hartuko du hitza bertaratuakoen aurrean: *Gure barneko detektibeak. Sistema immunologikoa ezagutzen* berbaldia egingo du.

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Maiatzaren 7an hasi eta 17ra bitartean, *Eusfera* izeneko ekimena egingo dute Euskal Herrian, Taupa Euskaltzaleen Mugimenduaren eskutik.

Eusfera 0 eta 12 urte arteko umeen gurasoei –edo guraso rola betetzen duten helduei– dago zuzenduta, euskaraz jakin edo ez. Helburua da umeen unibertsoa, umeen ingurua euskaldunago egitea. "Gure etxeko haurren eta gaztetxoaren atmosferan euskaraz gero eta presentzia handiago izatea da helburua. Aurterapausoak ematen jarraitu nahi dugu aisialdia, kultur kontsumoa, erreferenteak, kirola, etxeko hizkuntza praktikak... euskaldunago izan daitezten", esan dute antolatzaileek.

Ekimenarekin bat egitea erabaki duten tokian tokiko elkarteekin eta eragileekin batera garatuko dute hamar egun horietan. Debabarreneko kasuan, Ermuan, Soraluzen eta Elgoibarraren izango da *Eusfera*-n parte hartzeko aukera.

'Euspazioak', ekimen aktiboak

Hain zuzen ere, bi zati izango ditu ekimenak.



Soraluzeko Pii-pilean elkarteko, gaztelekuko, ludotekako, Udaleko, Katamarran Haur Txokoko eta Abxolin Guraso Elkarteko ordezkariak.

Umeen ingurua euskaldunago egiteko 'Eusfera' ekimena hasiko da datorren astean

'Euspazioa' izeneko ekimen aktiboak eta etxerako 'Misikoak' izango dira

Batetik, *Euspazioak* izango ditu. Haurren eta gurasoen elkarguneak izango dira. Topagune horiek udalerrietan antolatuko diren ekimen aktiboaren bueltan sortuko dira; egingo dira lehiaketak, jolasak, tailerrak,

irteerak... denetariko ekintzak, tokian tokiko elkarteek eta eragileek antolatuta.

Horietan "euskara izango da ekimenaren erdigunean, eta euskarara hurbiltzeko aukera eskainiko dute modu atseginean,

euskaraz ez dakiten edo gutxi dakiten gurasoei ere espazio horietan parte hartzeko aukera zabaldua. Xuxurlariak egongo dira ekintzetan, hiztegitxoak erabiliko dira, eta beste hainbat tresna ere bai".

Etxean lantzeko 'Misikoak'

Bestetik, *Euskonauten bidaiaren* murgilduta, *Misikoak* egiteko aukera izango da, "etxekoekin egiteko moduko proposamenak".

Kasu horretan, *Eusfera*-ren webgunea baliatuta eskura daiteke egin beharrekoa, hiru eletan, euskaraz, gazteleraz zein frantsesez, *Gurasoentzako txokoa* izeneko atalean.

Misikoak familia bakoitzaren neurrira egindakoak izango dira. Hori ahalbidetzeko, *Eusfera*-ren webgunean galdetegi bete, eta etxe bakoitzeko umeen adina aintzat hartuta eta gurasoak euskaldunak diren edo ez kontuan izanda, proposamen egokitua jasoko du familia bakoitzak.

Gainera, *Misio* horiek *Euskonauten bidaiak*-k duen *Pasaportea*-n apunta daitezke, eta, zenbait kasutan –Soraluzen, adibidez–, *Misikoak* betetzen dituzten artean sariak zozketatuko dituzte.

Baliabide-sorta handia

Misikoak betetzeko, online baliabide sorta zabala jarri dute *Eusfera*-ren webgunean: ipuinak, euskal kantuak, errezetak, eskulanak... edozeinentzat eskuagarri.

Maiatzaren 1erako Eibarrera deitu ditu herritarrak LABek

Ainara Argoitia DEBABARRENA

Eibarren egingo du aurten LABek Maiatzaren 1eko manifestazioa, *M1 Langileok eragin* lelopean, eta hara deitu ditu Debarroko herritarrak. Untzaga plazatik abiatuko dute manifestazioa, 12:30ean, eta hiru aldarri nagusi izango ditu: etxebizitza eskubidea, kalitatezko zerbitzu publikoak, eta soldata eta pentsio duinak. Manifestazio bukaeran ekitaldi politikoa egingo dute, Untzagan, eta ondoren, 14:30ean, herri bazkaria, udaletxeko arkupeetan. Bazkaritarako txartelak LAB sindikatuaren Eibar-ko, Bergarako eta Arrasateko egoitzetan izan dituzte salgai, astelehena bitartean. Bazkalosterako, Nebar taldearen konzertua iragarri dute.

Kapitalismoaren kontra, langileen aldeko politikak

Munduak egun bizi duen gerra giroari erreparatu zioten mani-

festazioaren deitzaileek joan den astean, deialdia egin zuten egunean. Donald Trump Ameriketako Estatu Batuetako presidentek eta Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroak munduko herriak eta langileak jo-puntuan dituztela salatu zuten, eta gehitu haien menpe jarri direla Europako agintari gehienak. "Mozzorrorik gabe azaltzen zaigu kapitalismoa: sistema bortitza, koloniala eta heteropatriarkala", salatu zuten. Horregatik, Maiatzaren 1eko mobilizazioetan gerraren kontrako oihua ozen oihukatzen deitu dute. Horren harira, ohartarazi dute gerraren ondorioz sortutako ezegonkortasuna baliatzen duela patronalak prezioak garestitu eta langileen lan-baldintzak eskasteko. Hain zuzen, beren eskubideen alde greba mugagabeen dauden langileak izan zituzten gogoan, Maderas de Llodio eta Tubos Reunidos enpresetakoak.

"Euskaraz bizitzeko behar den dena" eskatuko du Kontseiluak Iruñean

A.A.

Euskaraz bizitzeko beharrezkoak diren baldintzak eskatuko dituzte Kontseiluak ekainaren 13rako deitua duen Euskaltzaleon martxan. Iruñean egingo dute mobilizazioa, eta *Euskaraz bizitzeko behar den dena* izango du goiburua.

Ez ditu euskarak garai gozoak bizi; ezta, ondorioz, euskaldunok ere. Hala ondorioztatu zuten Euskalgintzaren Kontseilua osatzen duten dozenaka gizarte eragilek Baionan joan den ostiralean egin zuten batzarrean. Azken hamarkadetan "berreskurapen ziklo bat" gertatu dela uste arren, euskararen etorkizunaz kezkatzeko arrazoiak egon badaudela diote; besteak beste, euskararen biziberritzearen kontrako oldarraldi antolatua bat. Horregatik guztiagatik, indarrak batzera deitu dute, uste baitute aurrerapausoak lortzeko babes instituzionala ez ezik indar sozial antolatua bat eta herritarren inplikazioa ere

behar-beharrezko direla. "Euskaltzaleatasunaren giharra" indartu beharra ikusten dute, motzean esanda, eta testuinguru horretan kokatu dute ekainaren 13ko mobilizazioa. Helburua: "Egungo larrialdi linguistikotik indarraldira igarotzeko premia gizarteratzea eta pizkunde berri baterako txinparta izatea".



Mobilizatorako kartela. KONTSEILUA

Herri Urratserako autobusa Debatik, Itziartik eta Mendarotik

Maiatzaren 10ean ospatuko da Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko jaia, Senperen, eta hara joateko autobusa antolatu dute Debako hainbat gurasok, Zuhazta Debako Euskaltzaleon Mugimenduak eta Mendaroko In Leike kultur elkarteak elkarlanean. *Geroa eraikiz* lelopean egingo dute Herri Urrats, eta irabaziak Donapaleun (Nafarroa Beherea) eraikitzeak duten lizeo berriarentzat izango dira. Zazpi milioi euroko kostua aurreikusiko dute.

Txartelak salgai daude jada, 10 euroan: Deban, Ieraenean; Itziarren, Burugorri; eta Mendaron, *mendaroninleike@gmail.com* idatzita -Mendaroko kasuan, autobusean bertan ordaindu beharko da, eskudirutan-. Autobusa 08:45ean irtengo da, Mendaroko tren-geltoki ondokitik, 09:00etan jasoko du jendea Deban, paseo estalian, eta 09:10ean, Itziarren, biribilgunean. 19:30ean izango dute bueltakoa Senperen.



Kepa Rodriguez | 18 | Eibar

LIDERGO EKINTZAILEA ETA BERRIKUNTZA - LEINN




Gure ikasleen ahotan

ari nintzen ikasten, baina, orain, unibertsitatera aldatuta, lagun berriekin ari naiz.

Zergatik aukeratu zenuen LEINN gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Hainbat pertsona ezagutzen nituen LEINN ikasten ari zirenak eta haiek hitz egin zidaten LEINNeko metodologiari buruz. Oso interesgarria iruditu zitzaidan, besteak beste, taldean lan egitea gustuko izan dudalako beti. Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen LEINN ez dagoelako beste inon.

Nola baloratuko zenuke orain arte LEINNen bizitako esperientzia?

Esperientzia oso positiboa izan da. Asko ikasi dut, bai maila profesionalean, bai maila pertsonalean. Benetakoa enpresa bat sortu dugu, eta benetakoa proiektuak egiten ditugu ikasten jarraitzeko. Dena taldean egiten dugu eta, horrela, elkarrengandik ere ikasten dugu.

Nola definituko zenuke Enpresagintza Fakultatean eta LEINNen erabiltzen den ikasteko metodologia?

LEINNen erabiltzen den metodologia oso praktikoa eta baliagarria iruditzen zait; egiten ikasten dugu.

Nazioarteko esperientzia LEINNen: izan al duzu atzerriko esperientziarik (learning journey-ak, nazioarteko proiektuak, ...) edo ba al duzu izateko asmorik? Nola eragin du edo eragingo du zure garapen pertsonal eta profesionalean?

Otsailaren 23an Alemaniara joatekoak gara. Han benetakoa proiektuak sortuko ditugu eta Euskal Herrian gauzatzen ari garen proiektuak eramango ditugu. Erronka berri bat da niretzat herrialde berri batean proiektuak sortzea eta garatzea, baina oso motibatuta nago. Garapen pertsonalari dagokionez, gustatuko litzaidake beste herrialdeetako kulturak ikastea eta Euskal Herrian ditugun baliabideekin

beste herrialde batzuei laguntzea. Hori da nire helburua.

LEINNen ekinez ikasten duzue, proiektu errealean bidez. Zein proiektutan ari zara lanean gaur egun eta zer rol duzu bertan?

Orain dela gutxi FARKAS proiektua sortu genuen Oier Borbolla eta biok. Web orriak sortzen ditugu ezagunak ez diren negozioei bezero gehiago eta ikusgarritasun handiagoa emateko; hori da gure helburua. Gaur egun, mundu digitala oso aldakorra da, eta mundu honetan sartzeko zailtasun asko izaten dituzte negozio askok. Horretarako da FARKAS, marketin digitalean laguntzeko.

Etorkizunari begira, zeintzuk dira zure asmoak?

Maila pertsonalean zein profesionalean hobetzen jarraitzea da nire helburu nagusia. Proiektu berrietara zabalik nago beti eta erronka berriei aurre egiteko prest ere bai.

NIRE USTEZ

Segi berriketan



ARRATE GISASOLA

Iltzaturik gelditu zitzaidan duela hamar bat urte irakaslearen esaldi hura: "Igartzen da semearekin berba egiten duzuela". Irakasle bat hori esatera iritsi bada... hau panorama!

Ez zen zuzenean euskarari buruz ari, gure artean komunikazioa bazegoela esaten ari zitzaidan *soilik*. Baina esandakoa hizkuntza gutxituen egoerari lotzen badiogu, euskarari lotzen badiogu, alarmak pizteko moduko esaldia badela esango nuke.

Euskararen transmisioan edo ezagutzan urratsak egiteko ezinbesteko tresna dugu ahozkoaren garapena. Mintzamina ez delako soinuaren artikulazio soilera mugatzen; ideiak antolatzea ere bada, nabardurak kudeatzea, enpatia lantzea eta diskurtso koherente bat eraikitzen ahalegintzea. Eta ez naiz unibertsitateko saio magistrat horretako diskurtso ponpoxoaz ari. Egunerokoan ahozko elkarreraginerako momentuei denbora gehiago ematearen beharraz ari naiz.

Gure kultura eta memoria transmisioak nekez hartuko baitu lekua, nekez bustiko gaituelako, gaur egungo gizartearen dugun informazio uholde zoro honen logikari men eta men egiten jarraitzen badiogu. Eta gure txikian, ahozkoari leku gehiago egitean egon daiteke gako bat.

"Belarritik sartzen diren berba eta berbaldiak ahora bidaiatzeko aukera paregabe dira"

Eta orain, amamarekin izandako elkarrizketa bat datorrit gogora: "Nik ez dakitz euskeraz ondo"; "Ez dakizula euskeraz? Zure loiba danek baino hobeto egiten dozu barren!". Eta sorbaldak gora amamak. Bere burua analfabetoen bandoan kokatuta. Jakintza, irakurketa eta idazketari lotuak. Eta puntu. Ba, gustura hartuko nituzke haren esamolde, istorioak gure belarrietara ekartzeko modu edota pasadizoak kontatzeko zuen piper eta gatza. Berezkoa? Ez. Entrenatua; su bueltan, etxeko atarrietan, sehaskan, kolean, dendako ilaran.... Jai berri eta lehen hilabeteetan entzun, entzun eta tarteka onomatopeietan adierazi. Beranduxeago; esan eta entzun, entzun eta esan. Belarritik sartzen diren berba eta berbaldiak ahora bidaiatzeko aukera paregabe dira eta, erabiltzeko gertuago daude.

Gu bai analfabetoak, amama! Analfabeto funtzional eta... abar!

GUTUNAK

31. Jose Gurrutxaga krosa

J. GURRUTXAGA KROSA BATZORDEA
ELGOIBAR

Elgoibar Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den apirilaren 19an, ospatutako 31. Jose Gurrutxaga Krosa antolatzen lagundu zuten guztiei: BM, Danobat, Elgoibarko Udala, Elgoibarko Udal Kirol Patronatua, *El Diario Vasco*, Karakate, Goki Erreformak, Original, Bronymec, Kutxabank, Laboral Kutxa, Mansicidor, Cordon-Vilarchao, Egotoki, Gare Radio Club, Santi eta Irune Arriola eta Juanjo eta Egoitz Gurrutxaga.

Bestalde, eskerrik beroenak ere parte-hartzaile guztiei.

Datorren urtean 32. *J. Gurrutxaga Krosa* antolatzen laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

Urumeako mendiak arriskuan!

A.I.Z.
ELGOIBAR

Urumeako mendietan egiteko asmoa duten makroelikoien proiektuak natur korridorea arriskuan jarriko duela salatu dute Urumea Bizirik elkarteak eta hainbat mugimendu ekologistak. Ikatz Gane deituriko makroeliko proiektua Enigma eta Arena Green Power enpresek egingo lukete –horien atzean Endesa multinazionalako karguak ere badaude–. 33 MW-ko bost

errota handi aurreikusten dituzte Pagalegi eta Etxolaberri inguruetan, Ereñotzutik gora, Hernani (Gipuzkoa) eta Arano (Nafarroa) udalerrien arteko mugetan.

Aurkeztu dituzten txostenen arabera, eragin oso kaltegarria izango luke hango mendietako landaredian eta faunan, eta landa eremuaren pobretzea ekarriko luke, besteak beste. Era berean, Aiako Harria Parke Naturalaren eta Leitzarango Biotopoaren artean dagoen korridore ekologikoa arriskuan jarriko luke, eta bertako landaredian, espezie endemikoetan eta faunan zein akuiferoetan inpaktatuko luke zuzenean.

Beste behin, proiektua bera aurkezteko prozedura salatu dute, informazio gabezia eta gardentasun falta handia egon delako; herritarrek babesik gabe daude. Kalteturiko udalei azken momentura arte kontsultarik egin ez izana ere traba handia izan da alegazioak jartzeko orduan –epemuga motzak–. Makroproiektua, Euskal Herriko handiena litzatekeena, bost konexio desberdinetan zatituta aurkezteak, bestalde, prozedura bera legezkoa ote den zalantzan jartzen du.

Proiektuari alegazioak jartzeko epea zabalik da, maiatzaren 4ra arte. Urumea Bizirik elkarteak herri-alegazioak jartzeko dokumentua egin du, herritarrek sinatu eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailean aurkeztu dezaten.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: **2.000** (hutsuneak barne). **BARRENAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.** Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Aita Agirre Kulturegunea 3-3, 20870 Elgoibar / barrena@barrena.eus

Barrena[®]

DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea

Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria

Gaizka Azkarate.

Zuzendari nagusia

Egoitz Unamuno.

Eduki arduraduna

Ainara Argoitia.

Erredakzio batzordea

Ainara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhoa Andonegi, Izaro
Aulestiarte.

Kazetariak

Ainara Argoitia, Ainhoa
Andonegi, Alex Turrillas, Ander
Gomez, Asier Orbea, Egoitz
Unamuno, Izaro Aulestiarte,
Nerea Bedialauneta, Ubane
Madera.

Diseinu arduraduna

Oier Larreategi.

Zuzentzailea

Sergio Azkarate.

Kidetzak eta banaketa

Alex Turrillas.

Maketazioa

Zaloa Arnaiz, Oier Larreategi.

Publizitatea

Leire Rubio.

HARPIDETZA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA

Deba 20820
Ifar Kalea 12, behea
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA

Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZKO EGOITZA

Soraluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua:

LG D 993-2025

ISSN: 3101-2647

Tirada: 10.500 ale

Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Debako
Udala



Elgoibarko
Udala



Ermuko
Udala



Mallabiko
Udala



Mendaroko
Udala



Mutrikuko
Udala



Soraluzeko
Udala



NONDIK NORA

"Nire bizitza hemen dagoela sentitzen dut"

JOANA LAURENCENA (URUGUAI, 1983)

Montevideokoa da sortzez Joana Laurencena, eta duela sei bat urtetik Mendaron bizi da, senar Marcos Serrarekin eta seme Benjarekin

Ainara Argoitia MENDARO

Bizi hobea baten ametsak ekarri zuen Euskal Herrira Laurencena-Serra familia. Uruguaitik Eivissara (Herrialde Katalanak) egin zuten aurrena, baina, han bizimodurik ezin atera, eta urte berean Mendarora iritsi ziren.

Zein izan zenuten Euskal Herrira etortzeko arrazoi nagusia?

Gure herrialdean bizi genuen segurtasunik eza, beldurra. Gasolindegia batean lan egiten nuen, Montevideon, eta Uruguai utzi aurretikoan tiroketa bat izan genuen lantokian. Nire senarrak, berriz, elikagaiak banatzeko enpresa bat zeukan eta hiru hilabete lapurreta ugari egin zizkioten. Irteten zen goizean lanera, eta ez nuen jakiten itzuliko zen ere, han bizitzak sake-lako telefono batek baino gutxiago balio duelako batzuentzat. Ezin ginen egoera hartan bizi; are gutxiago, seme txiki bat izanda. Etorkizun hobea eman nahi nion semeari, eta, kostata, baina hartu genuen erabakia.

Eta nolatan aukeratu zenuten hona etortzea?

Ez ginen zuzenean hona etorri. Uruguaitik Eivissara (Herrialde Katalanak) jo genuen, han bizi zelako ordurako nire neba zaharrena. Hark aholkatu zigun hara joateko. Lana erraz topatuko genuela uste zuen gure nebak, aukera ikusten zuen, baina usteak ustelak gertatu ziren. Eivissan, gainera, oso garesti dago bizitza. Aurrezkiekin erdia xahutu genuen etxearen alokairuan hilabete gutxiren buruan, eta oso egoera zailean gelditu ginen. Egun batean, senarrak hauxe esan zidan: "Joana, beste zerbait asmatu behar dugu. Ezin diogu honi eutsi". Hain geunden larri, senarrak lanetik ezagutzen zuen emakume bati deitu behar izan zion, gure egoeraren berri eman eta laguntza eskatzeko. Hark bidalitako diruarekin egin genuen aurrera [Hunkitu egin da gogoratze hutsarekin]. Eta urte berean hemen amaitu genuen, Mendaron, kasualitatez. Lagun batzuek esanda etorri ginen hona, haiek topatu ziguten etxea ere,



Joana Laurencena eta Marcos Serra senar-emazteak Benja semearekin. AINARA ARGOTIA

eta bizitza aldatu zitzaigun hemen. Goizetik gauera lan egin nuen bi urte eta erdian, eta egun askotan goizean ikastolara sartzeko unean baino ez nuen ikusten semea, baina ez daukat damurik; egoera hartan ere, Uruguain baino hiru aldiz hobeto bizi ginelako hemen. Goizaldeko hirurak arte lan egiten nuen tabernan, baina lana amaitutakoan lasai etxeratu ahal izate hori edo semea adinkideekin kalean jolasten ikustea gauza handia ziren niretzat.

Montevideotik Mendarora. Aldaketa handia izan behar du horrek!

Aldaketa izugarria, baina onerako denean, erraz ohitzen da bat, hasierak oso diren arren zailak. Zorionez, nik neuk behala topatu nuen lana; senarrari gehiago kostatu zitzaion. Hori bai, eskolatu genuen semea, eta negarrez etortzen zitzaigun egunero etxera, Uruguaira itzuli nahi zuela esanez, ez zuelako ezer ulertzen. Gehitu horri nik neuk ez neukala denborarik haren ondoan egoteko. Gogorra da oso, benetan. Eta erabaki nuen eguerdian euskara eskolatan izena ematea, semeari laguntzeko. Erakutsi nahi nion ni gai banintzen hark ere ikas zezakeela eta elkarrekin lortuko genuela. Eta asmatu nuen. Gaur,

nire semea erabat bertakotuta dago, eta ni ezin naiz harroago eta pozago egon. Askotan esaten diot egiteko euskaraz lagunekin, hizkuntza menderatzea oso lagungarri izango zaiolako eskolarako eta bizitzarako, oro har. **Harrera-herri gisa nolako da Euskal Herria?**

Ba, begira, Marcosi mila aldiz esan diodana esango dizut: sekula ez naiz kanpoko sentitu hemen. Sorterriaz asko gogoratzen naiz, jakina, baina hemen maitasun handia sentitu dut, eta asko lagundu didan jende asko tokatu zait inguruan. Virgilio [Guano] eta Marcia [Plasencia] senar-emazteengandik hasita. Haiek izan ziren laguntza eskaini ziguten lehenengoak Mendaron, eta Saioa ere aipatu nahi nuke [Andonegi, lan egiten duen dendako ugazaba]. Dendarako hartu ninduen, barneratu egin nau hemengo kulturari, eta, denda plazan bertan egonda, semea ere gehiagotan ikusten dut orain. Senarra ere lanean dabil gaur, eta, horri guztiari esker, denbora gehiago ere badaukat etxeari eta familiari eskaintzeko.

Zer esango zenuke Mendaroz?

Zerbait nabarmendu beharko banu, mendaroarren duten gizatasuna nabarmenduko nuke.

Eta ez pentsa lausenguz ari naitzenik; hori sentitu dut nik. Eskuzabalik hartu ohi dute lanerako gogoz datorrena hemen. Nik beti esaten diot gauza bera semeari ere: norberak gauzak ondo egiten baditu, norbera saiatzen bada, bizitzak modu berean erantzuten du. Hizkuntzarekin gauza bera ikusi dut. Ni ez naiz ondo moldatzen euskaraz hitz egiteko, baina konuratzen naiz dakidan apur hori egiten dudanean jendeak asko eskertzen duela, eta garbi daukat, gainera, niri hori egitea dagokidala. Gu geu etorri gara hona eta geuk egin behar dugu ahalegina hona egokitzeko. Egia esango dizut: nik ez daukat Uruguaira itzultzeko asmorik, familia ikustera ez bada, behinik behin. Nire bizitza hemen dagoela sentitzen dut, eta semea, berriz, mendaroarra sentitzen da %100.

"Hunkitu egiten naiz Bulegoren musikarekin, eta izugarri gustatzen zait Txapeloaz dantza"

Herrian erreferentziakoak diren denda batean eta taberna batean egiten duzu lan. Horrek berak ere lagunduko du herria hobeto eza-gutzen, ala?

Tabernari hasi nintzen hona iritsi berritan, eta barra atzean lan egiteak ate asko zabaldu zizkidan. Bezero nituenen etxe batzuk garbitzen ere aritu nintzen, eta gaur ere joaten naiz oraindik adinekoren bat edo besteren etxeetara, baina laga samartuta daukat hori.

Ba al duzu hemen bereziki gustuko duzun zerbait?

Dena gustatzen zait. Leku batean pozik bizi zarenean, nekez ikusten da txarrik. Baina esango dizut, hara: hunkitu egiten naiz Bulego taldearen musikarekin eta izugarri gustatzen zait Mendaron ospakizun guztietan dantzatzen duten Txapeloaz dantza. Santanak ere mundialak dira. Gogoan daukat lan egin beharrik izan ez nuen urte bakarrean semeak nola esan zidan: "Ama, dantzatuko dugu aurten biok Txapeloaz?". Hunkitu egin nintzen, eta han ibili ginen etxean YouTube jarrita dantza ikasten, aukera sortzen zenerako. Eta duela bi urteko santanetan, berandu baten lehertuta etxera gindoazela, hasi ziren erromerian hori jotzen, eta han batu ginen biok plazara. Sekula ez dut ahaztuko momentu hura. Hain ederra izan zen semearekin hori bizitzea...

Mendarok herri izaera lortu zuen urte berean jaioa zara. Bazenekien?

Bai, esana didate. Ez nekiena zen nire abizenak euskal jatorria zuena. Euskara irakasle izan nuenak esan zidan. Eta zer da, eta duela asko ez zela osabak aitortu zidan arazoak izan zituela behin banketxe batean Laurencena abizenarekin, z-rekin zela esaten ziotelako. Hasi omen zen orduan gure lehengusua Interneten azterka, eta halaxe jakin zuen osabak bere birraitona nafarra izan zela. Argentinara emigratu zuen gaztetan gizon hark, eta han eza-gutu zuen gure aitaren birramona izan zena. Beraz, euskal sustraiak ditut neuk ere. Ez al da polita!

Mailaz igotzeko kanporaketak jokatu dituzte Alcortak eta Malapek asteburuan

Liga erregularra bukatu ostean, mailaz igotzeko kanporaketak hasiko dira

Asier Orbea ELGOIBAR

Euskadiko Txapelketan lehiatzen ari diren senior mailako Sanloko bi taldeek, Malapek zein Alcortak, mailaz igotzeko kanporaketak jokatu dituzte asteburuan; Berangon emakumezkoen taldeak eta Legazpin gizonezkoenak.

Malape taldeak joan den zapatuan jokatu zuen liga erregularreko azken partida, Errenterian, liga txapelketa irabazi duen Ereintza Bitek taldearen aurka, eta 30-26 gailendu ziren etxeokak. Hala, Malapek bosgarren postuan bukatu du liga, 27 punturekin –hamahiru partida irabazi, bat berdindu eta zortzi galdu dituzte–.

Orain, mailaz igotzeko bidea hasiko du Malapek; oztopoz beteriko bidea. Euskadiko Txapelketan lehiatu diren bi taldek jokatu dute Ohorezko Zilarrezko Mailara igotzeko kanporaketa, Espainiar Estatuko beste talde batzuen aurka; liga txapelketa irabazi duen Ereintza Bitek da horietako bat; eta igoera jokatzeko bigarren txartela lau taldek jokatu duten kanporaketatik irtengo da. Liga lehen bost postuetan bukatu duten taldeen artean, hain zuzen: Berango, Orio, Aloña-Mendi eta Malape. Lauko final hori ligako txapeldu-



Alcortak iaz ere jokatu zuen mailaz igotzeko lauko finala, Zarautzen. NOEMI GARCIA

nordearen etxean jokatu dute, Berangon, asteburuan. Zapatuan, maiatzaren 2an, jokatu dituzte finalerdia. Lehenengoan, Oriok eta Aloña-Mendik jokatu dute elkarren aurka (16:00), eta bigarrenengoan Berango Urduliz

Eskubaloia eta Malapek neur-tuko dituzte indarrak, 18:00etan hasita. Finalurrekoetako irabazleek domeka eguerdian jokatu dute finala, 12:00etan. Igoera faserako sailkatzeko txartela izango da irabazlearentzako saria.

Alcortak Legazpin jokatu du lauko finala

Senior mailako gizonezkoen Alcorta Forging Group taldeak ere joan den asteburuan jokatu zuen liga erregularreko azken partida, eta 28-24 irabazi zion Escolapios taldeari; Olaizaga kiroldegian jokatu zen neurketa. Elgoibartarrek laugarren postuan bukatu dute liga, 34 punturekin –hamasei partida irabazi, lau berdindu eta sei galduta–. Donibane taldeak irabazi du Euskadiko Txapelketa eta zuzenean sailkatu da Lehen Nazional Mailarako igoera fasea jokatzeko. Lauko finala irabazten duen taldeak eskuratuko du igoera fase hori jokatu ahal izateko jokoan egongo den bigarren txartela.

Elgoibartarrek Laubide, Urdaneta eta Muskiz izango dituzte aurkari Legazpin jokatu duten lauko finalean. Zapatuan jokatu dituzte bi finalerdia: Laubidek Urdanetaren aurka jokatu du lehen finalerdian (17:00), eta bigarrenengoan, Alcortak eta Muskizek jokatu dute (19:00). Finala domekan izango da, 13:00etan.

Maiatzaren 16an egingo dute aurtengo Zientzia Azoka, Sigmako probalekuan, goizez

Askotariko tailerrak izango dira, eta maiatzaren 13a da haietan izena emateko azken eguna

A.A.

Datorren maiatzaren 16an Zientzia Azoka egingo dute Sigmako probalekuan, 11:00etatik 14:00etara. Bertan, tailer zientifikoetan parte hartzeko aukera egongo da, horretarako, aurrez eman behar da izena. Hilaren 13ra arte jasoko dira izen-emateak, online. Izena emateko, eskuorrian agertzen diren tailerretatik ordu bat aukeratu, klikatu eta formularioa bete besterik ez da egin behar. Aukeratutako ordua beteta badago, ohar bat agertuko da eta libre dagoen beste orduren bat aukeratu beharko da. Tailerrak eta esperientziak HH2 eta DBH1 arteko ikasleentzat izango dira. Azoka egunean informazio-puntu bat egongo da, bertaratzen den edonori laguntza emateko: tailer bakoitza non dagoen kokatuta, norbera zein tailerretara apuntatu den eta bestelako informazioa



lazko azokako irudi bat. AINHOA ANDONEGI

bertan argitu ahal izango da. Helbide honetan dago izena emateko formularioa: form.jotform.com/261033123089045

Hainbat eragile

Hainbat eragilek hartuko dute parte azokan, eta bakoitzak bere postua izango du. Besteak beste, Ikastola, Herri Eskola, Elgoibar

BHI, IMH Campus, Elgoibar LHII, Bizilabe Elgoibar, Danobatgroup, Robotika Dibertigarria eta Libellium erakundeek hartuko dute parte. Eskoletan eginiko *steam* proiektuak aurkeztuko dituzte ikasleek, eta Bizilabe tailerretan parte hartzen dutenek ere ikasturtean zehar egindako lanak erakutsiko dituzte.

Maiatzaren 4an zabalduko dute eskola kirolean izena emateko epea

Berrikuntzak iragarri dituzte datorren urterako: iraupen luzeagoa izango du eta merkeagoa izango da

Ainhoa Andonegi

Datorren ikasturteko eskola kiroleko programan izena emateko epea maiatzaren 4an irekiko dute, eta interesatuek hilaren 22ra arte izango dute izena emateko aukera. Izen-emate epea aurreratzea ez da izango berrikuntza bakarra; izan ere, ikasturte berriak aldaketa nabarmenak ekarriko ditu, bai ekonomikoki, bai programari dagokionez. Iraupenari dagokionez, orain arte eskola kirola urrian hasi izan da beti, baina datorren ikasturtean irailaren 14an hasiko da, eta ekainaren 19an bukatu, ikasturtearekin batera.

Beraz, orain artekoarekin alderatuta, bi aste gehiago iraungo du egitasmoak, eta haurrek aukera zabalagoa izango dute kirola egiteko eta taldekideekin gozatzeko.

Merkeagoa

Prezioari dagokionez ere aldatuta nabarmena izango da; hain zuzen ere, 112 eurotik 60 eurora jaitsiko da urteko kuota, ia erdira. Gainera, gizarte izaerako laguntzak jasotzen dituzten familiek %70eko deskontua izango dute, eta urteko kuota osoa, berriz, 18 eurokoa izango da haientzat. Kirol heziketa herritar guztientzako irisgarriago egitea dute helburu arduradunek, eta horregatik hartu dute erabakia.

Programari dagokionez, talde bakoitzak astean zehar bi kirol saio izango ditu. Horrez gain, hileko bi larunbatetan topaketak eta jardunaldiak egingo dituzte, egunerokotasunetik harago askotariko kirol esperientziak eskaintzeko erabiltzaileei.

"Umeen aurrean denetik egitera ohituta nago, baina antzeztea beste kontu bat da"

MARISABEL AIZPURUA IRAKASLE OHIA

A.A.

Amurrion egingo dute 2026ko Arabako ikastolen aldeko Araba Euskaraz jaia, ekainaren 14an, eta dagoeneko aurkeztu dituzte abestia eta bideoklipa: *Taupadak berpiztu!* dauka izena, eta bideoklipeko protagonista nagusia Marisabel Aizpurua elgoibartarra da. Ondo baino hobeto ezagutzen duen rola antzeztu du ikus-entzunezkoan, andereño batena; hain zuzen, azken eskola eman behar duela eta triste eta nostalgiaz bete den andereño baten azalean sartu da.

Araba Euskaraz jaiko bideokliparen protagonista nagusia zara. Nola iritsi zaizu paper hori betetzeko aukera?

Nire hiru biloba ari dira Amurrioko Aresketa ikastolan ikasten, eta astean birritan joaten naiz haiengana azken hamar urteotan. Erretiroa hartu nuenetik, sarriago ere joan izan naiz tarteka, eta, batzuetan, haien geletan ere sartu izan naiz, ipuinak kontatzera. Hortaz, eduki dut harremana ikastetxearekin azken urteetan, eta ezagutzen naute. Araba Euskaraz antolatzen diharduen lantaldeak eskatu zidan bideoklipa egiteko laguntza. Aresketa ikastolako ikasle ohi Eneko Martinez arduratu da bideoklipa egiteaz, eta hark egin zidan proposamena. Ezetz esaten ere ez dakidanez, baietz erantzun nien. Ni beti nago laguntzeko prest, eta are gehiago ikastolen eta euskararen alde. Horrela sartu nintzen abentura horretan, eta jarri nintzen zuzendariaren aginduetara, baina ez nuen espero horrenbestearinoko protagonismoa izango nuenik.

Zer iruditu zaizu bideoklipa? Gustatu zaizu?

Sekulako sorpresa hartu nuen. Jendaurrean aurkeztu bezperan erakutsi zidaten azken emaitza; zuzendariak nahi zuen ikusten aurrea neu izatea. Hala, asteazkenean aurkeztekoak ziren eta nik asteartean ikusi nuen. Ez nuen horrelakorik espero, baina oso polita iruditu zait. Hunkitu egin nintzen, eta gustatu egin zitzaidan, bai. Ez dut



Marisabel Aizpurua, bideoklipean. INTERNET

neure burua arrotz ikusi, naturaltasunez agertu naizela iruditu zait, naizen modukoa.

Irakasle izandakoa zara, eta, hain zuzen ere, ondo ezagutzen duzun lan hori antzeztu duzu bideoklipe-rako.

Bai, hala da. Umeen aurrean denetik egitera ohituta nago, baina antzeztea beste kontu bat da. Haur Hezkuntzako irakaslea izan naiz, eta umeei ipuinak kontatu izan dizkiet, antzerkiak egin izan ditut, txotxongiloekin ibili izan naiz, abestu egin dugu... 40 urtean izan naiz irakasle, eta umeen aurrean jartzeko ez daukat inolako arazorik. Eta, egia esan, izan dezake lanbideak berak zerikusirik egin dudanarekin, baina kamera baten aurrean jarri naizen estreinako aldia izan da, eta

"Arabaren euskara sustatzeko behar handia dago eta denon ekarpena beharrezkoa da"

lanean aritzea edo antzeztea ez dira gauza bera. Zuzendariak emandako aginduak jarraitu nituen nik, eta esperientzia polita izan da bideoklipeko irudiak grabatzearena.

Euskara biziberritzearen beharra azpimarratzen dute Igon Olaguenagaren hitzek.

Bai, euskararen biziberritzeko beharrei dei zuzena egiten diote *Taupadak berpiztu!* abestiaren hitzek; herriaren bihotzaren taupadak –bihotz-joera kolektiboa– berpizteko, alegia. Abestiaren hitzek hausnarketa sakona egiten dute euskararen egoeraren inguruan, 60ko eta 70eko hamarkadetako berpizkundetik, hau da, *Nondik gatzoz ta nora goazen* hasita, gaur egungo geldialdi zantzuei aurre egiteko dei egiteraino –ez dezagun ahaztu zein den gure bidaia–.

Bideoklipean ez ezik, Araba Euskaraz antolatzekeo boluntario ere aurkeztu zara.

Bai; senarrak eta biok eman dugu izena. Amurrion zein Araban euskara sustatzeko behar handia dago, eta denon ekarpena izango da beharrezkoa.

Udalak 20.000 euro inbertituko ditu padel-pistak berritzeko

A.A.

Mintxetako bi padel-pistak berritu egingo ditu Elgoibarko Udalak, eta, horretarako, 20.000 euroko inbertsioa egingo du. Obrak bi aste inguru iraungo du, eta, ondo bidean, datorren uztailan egingo dute. Batetik, instalazioen zorua berrituko dute. Belarrari dagokionez, bi pistetan berria jarriko dute, eta, Udalak aditzera eman duenez, obrarako erabiliko duten materiala punta-puntakoa izango da, berritzailea: monofilamentu testurizatu erabiliko dute; belar konbentzionalarekin alderatuta iraunkortasun handiagoa, ukitu hobe eta kirol errendimendu handiago eskaintzen dituena. Lurzorua berritzearen esku-hartze horren kostua 16.000 eurokoa da.

Padel-pista berritzea, hala ere, ez da belar artifizialera eta lurzorura soilik mugatuko; izan ere, argiztapena ere berrituko baitute. Pista bakoitzean zortzi LED foku jarriko dituzte, eta horrek bi onura ekarriko ditu,

nagusiki: alde batetik, energia-kontsumoa "nabarmen" murriztuko da, eta horrek diru kostua gutxituko du; bestetik, argiaren kalitatea hobetu egingo da, eta jokalariei eta kirolariei padela praktikatzeko askoz ere baldintza egokiagoak eskainiko die. Horren kostua 4.000 eurokoa da.



Mintxetako padel-pista. ASIER ORBEA

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162

Jon Aranoa
 Guillermo Torres
 Elgoibar
 Albaitaritz

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
 943 740 704 - 639 047 337
 Asteleheneetik ostiralera:
 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
 Larunbata: 11:00 - 13:00

ilepaindegi zerbitzua daukagu.
 Deitu ordua hartzeko.

EXPRESS ESKAINTZAK!

**COMBI HAIER
 HTW5618ENPW
 HOZKAILUA**

639€



- Total No Frost
- 360 litro
- Myzone pro kutxa
- Hezetasunaren kontrola daraman kutxa
- 185 zm-ko altuera
- Aire-fluxu zirkularra
- Display taktila
- Led argiztapena



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487
 bire@milar.es
 Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

NIRE USTEZ

Maiatzaren Lehena, ate joka

GORANE AYESTA MAIDAGAN
DEBA BAILARAKO
KONTSEILU
SOZIALISTAKO KIDEA

Maiatzaren Lehena Langileen Nazioarteko Eguna da. Data esanguratsu honek ezinbestean gonbidatzen gaitu azkenaldian bizitzen ari garen eraldaketa azkar eta konplexuen inguruan pentsatzera. Izan ere, zer ari da benetan gertatzen munduan? Zergatik izaten dira aldaketa hauek? Eta, batez ere, noren interesen alde gertatzen dira?

Galdera horien harira, garai nahasiotan gero eta agerikoagoa da mendebaldeko oligarkiak, AEB eta Israel buru direla,

mundua beren interes ekonomiko eta politikoen arabera antolatzen ari direla. Eta Mendebaldeko krisiari irtenbide militarra ematen ari zaio.

Horrek ondorio zuzena du: langileon bizi-baldintzak okertzen ari dira, pobrezia handitzen eta desberdintasunak areagotzen. Ez da kasualitatea. Ekialde Hurbilean gerra eta genozidioa eguneroko ogi bihurtu dira. Gurean, gerra eta krisi orokortuaren eraginak ez dira urruneko errealitateak. Aspalditik ari gara nabaritzen krisiaren albo-ondorioak, eta Irango gerrak areagotu besterik ez ditu egin: enpresen itxierak, lanpostuen galera,

soldaten gainbehera eta bizitzaren garestitzea. Horrek guztiak zuzenean kolpatzen gaitu gure egunerokoan.

Testuinguru honetan, argi dago gatazka hauek ez direla "kanpoko arazoak". Gutxi batzuen interesak defendatzeko antolatutako sistema batek langileon bizitza baldintzatzen baitu, hemen zein munduko beste leku batzuetan. Hortaz, langileon batasuna eta antolakuntza inoiz baino beharrezkoagoak dira, kontzientzia hartzeko eta etorkizun justuago baten alde urrats sendoak egiteko. Horregatik, Maiatzaren Lehenean, Debabarrenetik ere gure aldarrikapenak Iruñeko kaleetara eramango ditugu.

GARAI BATEAN

1956a

Antonio Arrillagak lagatako argazkiko emakumezkoak ezagutzen laguntzeko dei egin genuen joan zen astean, eta herritar batek baino gehiagok bidali dizkigu izenak. Mila esker guztioi. Agurtzane Etxanizen ezkon-aurreko festa ospatzen ari dira emakumeak. Lehenengo ilaran: Auxi Arruza, Juani Garcia, M.

Dolores Iriondo, Karmentxu Azkue eta Agapita Gil.

Bigarren ilaran: ezezaguna, Pilar *Usetxe*, Kontxita Zabala *Galbuso*, ezezaguna, M. Tere Pedrosa, ezezaguna, Arrate Ulazia, Mirentxu Beloki, M. Tere Etxaniz, Julita *Andikano*, Margarita Estarta, ezezaguna, Eva Ibarluzea eta Juanita Rementeria.

Hirugarren ilaran: Miren Iriondo, Maribel Atxaorbea, Ascension Etxaniz, Arrate Etxaniz, Agurtzane Etxaniz – omendua–, Arantza Etxaniz, Karmele Gabilondo eta ezezaguna.

Laugarren ilaran: Itziar Etxaniz, Marikarmen *Usetxe*, ezezaguna eta Begoña Gabilondo.



SEMAFORO

Eskerrik asko

Carlos Fernandez zenaren lanak ikusten izan dira aste honetan Eguneko Zentzoko kideak, Nagusilanekeo boluntarioei esker. Mari Piconek antolatu du erakusketa, senarra zuenari omenaldi txiki bat egiteko, eta bisita hori ahalbidetu izana eskertu nahi die Nagusilanekeoi: Oso polita iruditu zait bisita hau, eskerrik asko guztioi".

Zuhaitz mozketarekin kezkatuta

Azkaraterako errepide zaharreko bide bazterretan egiten ari diren zuhaitz mozketekin kezkatuta deitu du herritar batek BARRENAra. Haren ustez, "sarraskia" egiten ari dira. Zuhaitzak mozteko darabilten irizpidea zein den jakin nahi luke: "Pagoak eta haritzak mozten ari dira barren! Egiten ari direna krimen ekologikoa begitantzen zait".



"Udalekuak antolatzen dituzten herriko eragileei eskatu nahi nieke uztaileko egutegia kontuan hartzeko. Guraso gehienok uztailearen 30era arte lan egiten dugu, eta udaleku gehienak uztailearen 17an amaituko dira aurten. Beste bi aste luze daude oraindik hilabetea amaitzeko. Kontziliaiorako ezinbestekoak zaizkigu udalekuak. Eskerrik asko".

Elgoibarko ermitak ezagutzeko bi irteera gidatu antolatu dituzte

Maiatzaren 16an egingo dute lehenengoa eta ekainaren 6an, bigarrena

Ainhoa Andonegi

Pello Arrieta eta Javier Elortza historialariek, Inma Mugertza geologoarekin batera, bi ibilaldi gidatu antolatu dituzte, Elgoibarko ermitak hobeto ezagutzeko. 2016an, Kalegoengo San Bartolome parrokian lehen meza eman zutela 300 urte bete ziren; eta San Frantzisko komentuari 500. urteurrena ere izan zen urte hartan. Ospakizun haien baitan, Elgoibarko elizak ezagutzeko mendi ibilaldia antolatu zuten, eta hura berreskuratzea erabaki dute orain. Dibulgazio historikoa, erlijiosoa, artistikoa eta geologikoa uzartuko dituzte, beraz, bi irteeretan: maiatzaren 16an, Elgoibarko ekialdean dauden ermitak bisitatuko dituzte; eta ekainaren 6an, aldiz, mendebaldekoak. Bi egunetan 08:00etan irtingo dira, Kalegoen plazatik,



Elgoibarko ermiten collagea. BARRENA

eta 14:00etarako bueltan egotea espero dute.

Maiatzaren 16ko ibilbidea

Parte-hartzaileak San Bartolome parrokia aurrean elkartuko dira, eta Aita Agirre plazan

egingo dute lehen geldialdia, inguru hartan egon ziren San Frantzisko komentuari eta jada desagertua dagoen ermita baten gaineko azalpenak jasotzeko. Gero, Azkue auzorantz abiatuko dira, San Bizente-San

Roke ermitara. Ondoren, Ibarxiki baserrian behera egin eta Sallobente-Ermuaren baserri-azura joko dute. Ama Birjinaren aldapan egingo dute geldialdia, eta han dagoen irudiaren atzean dagoen historia bistaratu. San Lorentzo basiliza bisitatuko dute ondoren, eta handik, Urruzuno auzorako bidea segituta, auzoko elkartera iritsiko dira. Bertan, Andres Egidazuk egurrean landutako San Antonioren tailu bat gordeta dute, eta hari buruzko informazioa jasoko dute. Urruzonotik Arriaga auzura joango dira, iraganean basiliza izan zuen auzora. Egun, San Antolingo lokal batean gordeta dituzte zenbait irudi erlijioso, eta haien inguruko azalpenak emango dituzte han. San Antolindik itzuliko dira herri-gunera, eta Maalako ermitan amaituko dute lehen eguneko ibilbidea.

Ekainaren 6ko ibilbidea

San Bartolome parrokiako arkupe aurrean elkartuko dira bigarren irteerarako ere, eta Deba ibaiaren ezkerrean dauden ermitak bisitatuko dituzte. Txankakoa zubian egin-

go dute lehen geldialdia, jada desagertuak dauden Santa Klara komentuari (1553-1976) eta Salbatore ermitari (1557-1953) buruz berba egiteko. Jausoro dorretxeko arkuaren babespean dagoen Ecce Homo edo Salbatailearen irudia ere izango dute hizpide inguru hartan. Hurrengo geldialdia Aiastia auzoko ermitan egingo dute. Zirarda eta Aiastia bailaretako baserriarrak elkartu zirenean Berdezkunde gurutzeko Done Mikel (San Migel) goiaingerua ermita eraikitzeke, Aiastia (San Migel) nekazaritza-azura ere sortu zuten, 1845ean. Aiastiatik Iruiturritantz joko dute, Kanpaizulo tumuluraino, haren historia ezagutzeko. Handik Santumotzera egingo dute bidea, haren berri ere jasotzeko, eta horren ostean, San Pedro basilizaraino jaitsiko dira, Idortorbera. Badago Vatikanoko artxibategian 1442ko agiri bat -Eugenio IV.a aita santuaren bulda- ermita harekin lotura zuzena duena. Herrigunerako bidea hartuko dute gero, Morutik beherantz, eta Olasoko hilerriko sarreran bukatuko dute ibilaldia.

TXANKAKUA

Ginkana

5.000 €

Elgoibarren | Comprar en Elgoibar
erosteak saria du | tiene premio

500€-ko bi sari eta 200€-ko hogei sari, erosketa-txarteletan emango dira. Zozketa Ekainaren 2an izango da.

Parte hartzaileak

Agurtzane Ite-apaindegia / Ainhoa Mertzera-Lentzeria / Alain Afflelou Optico Audiologo / Alire Estetika / Aranburu Bibi-denda Arauri Lurrindegia / Atelier Oihana / Barrutia Optika / Bizkor Bizikletak / Casa Astigarraga Gys Sport / Cristina Garcia Estetika eta Terapia Naturalak / Donna Ite-apaindegia / Doña Mercedes Denda / Ecnarro Lentzeria / Elisse Aesthetic Center / Farmazabal G&M Jantzi-denda / Garate Jantzi-denda / Garazi Sampedro Hertz Klinika / Generali Aseguru Agentzia / Henko / Herbolario Surya Belar-denda / Ipintza Margoak / Iriondo Kirolak / Iza'k Ite-apaindegia / Joyeria Iosu / Kala Loradenda / Kima Bioestetika / La Bermeana Arraindegia / Lagunak Colchoneria-textil / Lanbroa / Lete / Luma Ite-apaindegia / Maria Urizar Ite-apaindegia / Martin Lopez Carburantes Meraki Ite-apaindegia / Nalai Oinetakoak / Nu-van / Olaia Martinez Estetika Zentroa / Ongi Iturgintza eta Diseinua / Pibintxu Prest Tindategia Arropa tratamendua / Roteta Elektrizitatea / Sara Jantzi-denda / Txillarre Eko-denda / Uzuri Optika / Vinoteca Nalara Ardotegia Zazpi Informatika / Zure Alde Abokatuak

Animatu eta hartu parte!

Maiatzaren 2tik 30era!

Zerbitzuen gida

**Ezagutarazi zure zerbitzua
Debabarreneko herrietan**



**24 €
Hilean**

24 euroren truke, hileko zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARRENA astekarian!



Erakusleihoa

BARRENA astekaria Debabarreneko erakusleihoko ikusienetakoa da.



**10.500 ale
astero**

10.500 ale banatzen ditugu Debabarrenean zehar DOAN!

ARROZTEGIAK

DEKORAZIOA

ERABERRITZEAK

Jarri zure
publizitatea

MEKANIKARIAK

BIENA S.L.
ARROZTEGIA
Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

KM design
Kira Marrazteak
943 75 99 83
tekmuntak@kmdesign.com
www.kmdesign.com
Pta. Aribitza 3
48940 BERGARA

GOKI
erreformak
**FATXADA BIRGAITZEAK
ETA ERREFORMAK**
ELGOIBAR 943 74 42 23 SORALUZE 943 12 57 41

ITURGINTZA

SORALUZE MOTOR
Mendiola ind. 13
Sorluze
474 554 817 - 943 75 21 38

MAR
ARROZTEGIA
Olaso Industriegunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com

ELEKTRIZITATEA

IGELTSEROTZA

SANTANA
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.
Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 405 714 905
santana@iturgintza@gmail.com

PINTURAK

iraolagoitia
aroztegia - altzariak - etxe-aldaketak
Kurutze-gain Industriegunea, 9
20850 Mendiola
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

laibi 25 urte
Mendiola Industrialdea 13
Sorluze
Tel. 943 75 12 69
www.laibi.net

IZAGUIRRE
Igeltserotza
Erakin berriak - Kalitateko emaitza
Erreformatuak - Era guztietako Igeltserotza
50 urteko esperientzia - 610 638 913

LEIHOAK

BIOK
dekorazioa
Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

Jarri zure
publizitatea

Elektrizitatea Iturgintza
Igeltserotza Pintura
EXGA S.L.
679 623 584 Sorluze

Jarri zure
publizitatea

ODRI
ATEAK ETA LEIHOAK
Aluminio eta PVC aroztegia
662 234 609
odri@leioak@gmail.com
Sagar Erreka Kalea 2, 20580 SORALUZE
Mota guztietako leihoak, esakuntza eta korporatibak,
Atzak, leihoak, pertsonak berandutak, atzo-sareak
eta tolotak jartzen ditugu.

ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA
amaria
dekorazioak
inguruetan
Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

Zerbitzuen gidan agertu nahi izanez gero, deitu edo
Whatsappera idatzi telefono zenbaki honetara:

688 76 96 57

Labar artedun kobazuloak aztergai, Arkeosaioak zikloaren bigarren hitzaldian

Historiaurreko katedradun Cesar Gonzalez Sainzek emango du, hilaren 7an

Ainara Argoitia MENDARO

Iaz erretiroa hartu zuen arte Kantabriako Unibertsitateko Historiaurreko katedradun izan zen Cesar Gonzalez Sainzek egingo du Arkeosaioak hitzaldi-zikloko bigarren hitzaldia, maiatzaren 7an, udaletxeko udalbatza-aretoan, 18:30ean hasita. *El arte paleolítico en el valle de Deba y su entorno regional* izango du izenburua, eta Euskal Herriko, Asturiasko eta Kantabriako kobazulo askori buruz arituko dela aurreratu dute antolatzaileek, EHUko arkeologoek eta Suharri elkarteko lagunek. Haien esanetan, aurkikuntza klasiko nahiz berriek testu-inguru aberatsa eta askotarikoa markatu dute gure inguruan, eta nabarmen aldatu da hori Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian prospekzioak dinamizatu direnetik. Izan ere, 2005etik gaur



Cesar Gonzalez Sainz, Enetz Ezenarro alkatearekin, Goizane Alvarez Kultura diputatuarekin eta Maria Jose Iriarte EHUko arkeologoarekin, laz, urrian, Santakruzko labar artearen berri eman zutenean. AINARA ARGOTIA

arte hirukoiztu egin da Bizkaian labar artea duten kobazuloen kopurua, eta boskoiztu Gipuzkoan. Azkena egin diren aurkikuntzen artean kokatzen dituzte Mendaroko Agarre eta San-

takruzko kobazuloetan topatu dituzten margoak, eta, hain justu ere, azterketa-lan horien inguruko argitalpena prestatzen dihardu orain Cesar Gonzalez Sainzek.

Paleolito garaiko labar artean Kantauri aldeko erreferentziatzeko aditua da Gonzalez Sainz, eta diziplina horretako ikerketa-lan nagusietan parte hartu izan du azkeneko berrogei bat urtean. 150 bat urteko epean topatutako barrunbe ugari berraztertzeaz batera, eremu berrietako prospekzio-lanetan parte hartu izan du, eta aurkikuntza berrietan ere lagundu du. Hain justu, urte asko daramatza Euskal Herriko Unibertsitateko Historiaurreko ikerketa-taldearekin elkarlanean, eta talde horretakoekin zein Suharri elkartekoekin aitortu dute "ohore handia" dela haientzat Cesar Gonzalezek Mendarora etortzeko proposamena onartu izana.

Zikloko azken hitzaldia, maiatzaren 14an

Arkeosaioak zikloko hirugarren eta azken hitzaldia maiatzaren 14an izango dela aurreratu dute antolatzaileek. *Esparru domestikoa Frankismo garaian. Garaiko analisi arkeoetnografikoa* izenburua izango du, eta Kristina Pozo Sevilla Iodosarrak emango du. Aurrekoak ez bezala, euskaraz izango da zikloko hirugarren hitzaldia.

Maiatzaren 4a udalekuetan izena emateko azken eguna

Apirilaren 17an zabaldu zuen Mendaroko Udalak udaleku irekietan izena emateko epea, eta maiatzaren 4a izango da horretarako azken eguna. Bi txanda izango dira aukeran, baina bietan izena emateko aukera ere izango da, prezio merkeagoan. HH3 eta LH6 arteko ikasleentzako eskaintza da.

Ekainaren 22tik uztailearen 3ra artekoa izango da lehenengo txanda eta uztailearen 6tik uztailearen 17ra artekoa, bigarrena. Txanda bakoitzean izena emateagatik 70 euro ordaindu beharko dira, baina bietan izena eman nahi duenak hogeituroko deskontua izango du, eta, beraz, 120 euro ordaindu beharko ditu biengatik. Udalekuen ordutegia, berriz, 09:00etatik 13:00ak artekoa izango da. Udalak jakinarazi du familia ugariak eta guraso bakarrekoei dirulaguntza jasotzeko aukera izango dutela. Izen emateak mendarobirtuala.eus webgunean egin behar dira.

Jubilatuen egoitza eta taberna handitzeko obrak onbideratzeko bidea hasi dute berriro

Arazo batzuk tarteko, obrak gelditu egon dira; proiektua aldatu egin behar izan dute

A.A. MENDARO

Jubilatuen egoitza eta taberna handitzeko obrak geldirik daude denbora luzean. Joan den azaroaren 17an hasi zituzten lanak Jaizubi enpresakoek, eta zortzi hilabeteko epean zituzten amaitzekoak, baina obrak gelditzeko arrazoi izan diren eragozpenak eta ustekabeko kontuak izan dira tartean, eta proiektua moldatu egin behar izan dute. Sukaldeko kanpaia-aren keak bideratzeko hodia barrualdera ematen duen patiotik atera nahi zuten, eta hala aurkeztu zieten lehen bilera batean bizilagunei, baina, gero, kontra azaldu dira bizilagunen batzuk, eta hori izan da, hein handi batean, obra gelditzeko arrazoia. Bestetik, baina, hasierako proiektuan "aurreikusitako gabeko kontu batzuk" edo "guztiz lotu gabeko kontu batzuk" ere azaldu ziren behin Jaizubi-

koak lanean hasi zirenean, eta haientzako irtenbidea ere jaso dute proiektu berrian. Martitzeneko udalbatzaren osoko bilkuran onartu zuten kontratua aldatzeko prozesua hastea, aho batez, eta luze gabe hasi nahiko lituzkete berriro obrak.

Aurrez, baina, osoko bilkuratik pasatu beharko du berriro gaiak, proiektuaren zenbatekoagatik. BEZ barne, 690.000 euroko aurrekontua onartu zuten bere garaian obra horretarako, baina, proiektu aldaketarekin, 760.000 euro da orain zenbatekoa.



Jubilatuen egoitzako argazki bat, artxibokoa. AINARA ARGOTIA

Errenterian egin diote azken agurra Jokin Urain idazle eta preso ohiari

A.A. MENDARO

Apirilaren 25ean hil zen Jokin Urain Larrañaga idazle eta preso ohi (Mendaro, 1959), 66 urterekin, eta martitzenean egin zioten azken agurra senide eta lagunek, Errenterian. Mendaroko Alkorta baserrian jaioa zen, eta 1983an egin zuen ihes Ipar Euskal Herrira. Hiru urte geroago, 1986an, atxilotu zuten Basaurin, ETako kide izateagatik. 27 urte egin zituen preso gero, kartzelaz kartzela, harik eta 2013an libre utzi zuten arte.

Urainen lan idatziak

Hain justu ere, kartzelaldian idatzitakoak ditu argitaratutako liburu eta lan gehienak: *Izaina* (Amnistiaren Aldeko Gestorak, 1990), *Adlotse* (Txalaparta, 1992), *Gatibu sortu nintzen* (Susa, 2000), *Errotarria* (Susa, 2006) eta *Ez dago etxean* (Susa, 2010). Kartzelatik irten ostean ere idazten jarraitu zuen, baina, Urainek. Iritzi emaile jardun zen komunikabideetan

eta euskal pentsamenduari eta memoriari eskainitako beste lan batzuk ere argitaratu zituen, besteak beste: *Ametsen liburua* (2015); *Amaren Etxea. Euskal preso politikoaren senideen historia* (2018), eta *Txomin. Aurrerabolie* (2021). Bertso idatziak egile gisa ere nabarmendu izan zen, eta hainbat sari ere jaso zituen.



Artxibokoa. OARSALDEKO HITZA



Txirrindulariak Goienkaleko aldapa igotzen, iazko Udaberrikopan. ANDER GOMEZ

Bizkai osoko ehunka ume bizikleta gainean lehiatuko dira Ermuko kaleetan bihar

Bizkaiko eskolen arteko Udaberrikoparen laugarren lasterketa jokatu da

Ander Gomez ERMUA

Igorretik, Sondikatik eta Berangotik pasa ostean, Ermura ailegatuko da Udaberrikopa. Maiatzaren 1ean, 10:00etan hasita, aurrebenjamin, benjamin, alebin eta haur kategorietako txirrindulariek hartuko dute herrigunea.

Urteak dira Ermuko Txirrindulari Eskolak lasterketa antolatzen duela. Hasieran, Ambre inguruan egiten zen, industrialdean, baina zirkuitu urbanoa egin zenetik "ezinbesteko" hitzordu bihurtu da Bizkaiko eskolen ar-

tean. Horretan lagundu dute ermuarrek segurtasunean jartzen duten arretak eta bisitariei eskaintako detaileak, hala nola lasterkarien poltsa eta aurten plazan estreinatuko duten Txirrindularien Gunea. Horregatik, eta zubia izanik parte-hartzea jaisi egin daitekeen arren, ez dituzte 300 ume baino gutxiago espero. Markinako, Ondarroako, Lemoako, Karrantzako, Bilboko eta Galdakaoko eskolek adierazi dute ez dutela hutsik egingo.

Trafikoari dagokionez, 10:00etatik 14:00etara moztu egingo dute,

Frankfurt tabernatik Kaltxan-goko biribilguneraino eta handik Arizmendi frontoiko biribilguneraino. Hala ere, lasterketen artean bost minutuz irekiko dute, ibilgailuei irteteko aukera emateko. Umeak lehiatu bitartean, boluntarioek zainduko dituzte bidegurutzeak, zebra-bideak eta garaje-irteerak. Aurten berrogei bildu dituzte, iaz baino hamar gehiago, eta antolakuntzatik euren lana nabarmendu dute: "Eguna txirrindulariena da, baina boluntario barik hau guztia ez litzateke posible izango".

Txapeldunek garaipenarekin agurtu dute liga



ERROTABARRI

Hilabete eta erdi atzera, Lauko Ermuko Errotabarriko neskek ligako txapeldun bihurtu ziren matematikoki. Hala ere, azken hitzordua erakutsitako mailari eutsita bukatu nahi izan dute.

Zapatuan jokatu zuten, etxean. Grupo Kursaal Basauri taldea hartu zuten, eta 33-27 gailendu ziren; hala, modu ezin hobean itxi dute liga.

Orain, beste erronka bat dute: maiatzeko iguera fasea jokatu eta Urrezko Ohorezko Mailara igotzea.

Astelehenean egin zuten egoitzen eta taldeen zozketa, eta Errotabarrikoak Galizian lehiatuko dira, lehen multzoan. Marni Rosval, Helvetia Montequinto eta etxean jokatu duen Helvetia Saepast Cañiza taldeak izango dituzte aurkari.



Plazan zintzilikatutako pankartak, pilota txapelketan apuntatzeko QR kodearekin. B.B.

Kirola, politika eta artea nagusi Borrokan Barrena Egunean

Mahai-ingurua, kirol erakustaldia, txapelketa, tailerra, eta bertso eta DJ saioak izango dira zapatuko programazioan

A.G.

Debarreneneko GKSek eta Itaiak hirugarrenez antolatu dute Borrokan Barrena Eguna Ermuan. Maiatzaren 2an izango da, eta egun osoko egitaraua izango du.

Gernikako, Arrasateko eta Azkoitiko gaztetxeetako kideekin batera, gazte langileen egoera jorrazteko mahai-inguruarekin hasiko dute, 11:00etan, plazako aterpean. Bukatutakoan, 12:15 aldera, ohiko pilota txapelketa egongo da frontoian; hala ere, astebururako euria iragarrita dagoenez, Valdespina Markesa parkeko pista estalian petanka txapelketa jokatzeko aztertzen ari dira. Iazko grafiti-margotze tailerraren arrakasta ikusita, errepikatzea erabaki dute; 13:15ean izango da, plazan. Bertsoak poetorako utzi dituzte aurrekoetan, baina aurten bertso-bazkaria egingo dute, eta Aroa Arrizubie-

ta gasteiztarrak eta Martin Abarrategi aramaioarrak kantatuko dute. 14:30ean izango da, eta azken tiketak Infreñun daude salgai, 8 euroan -5 euroan ikasle eta langabeentzat-. Arratsaldean, herrira doako kirol eskaintza ekartzeko asmoarekin antolatutako boxeo eta kickboxing erakustaldia izango dute, 18:00etan, Merkatu plazan. Iluntzean, nahaste-mahaiak prest izango dituzte DJ Putsek, Enchantixek eta Yakintzak, 21:00etan hasiko den DJ gauarekin eguna borobiltzeko.

Antolatzaileek gogorarazi dute egun bateko egitaraua izatetik haratago doala Borrokan Barrena: "Ermuko gazte langileon elkargunea da, gure beharrak aseko dituen, despolitizazio eta zapalkuntza oro borrokatuko dituen, eta gure independentzia politikoaren alde egingo duena".


Torrealdy
ZURE FINANTZA-OSABUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA
 ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA


AMALUR
MAIATZAREN 2026
 688 619 896
 Zeharkale, 12 behea
 48260 ERMUA
 IRENE ESQUÉ col 1666 EGOITZ FORMOSO col 1675



Ermuko dantza talde guztiek hartu zuten parte Merkatu plazako erakustaldian. ANDER GOMEZ



Txindurriko umeak. A.G.



Pasialekuko jubilatua. A.G.

Estilo eta jatorri askotariko dantzak hartu zituzten Ermuko plazak

Hainbat talde, eskola eta kultur etxetako kideek dantzan eman zuten asteburua, Apirileko Ferian zein Dantzaren Nazioarteko Egunaren bueltan antolatutako jaietan, eta herritar guztiak batu zitzaizkien zapatu gaueko Primavera Fest jaialdian

Ander Gomez

Atzo, apirilak 29, Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatu zen, baina Ermuko dantza taldeek joan den barikura aurreratu zuten egunaren harira antolatutako jaialdia. Euririk egin ez bazuen ere, erakustaldia Merkatu Plazara lekualdatu zuten, badaezpada. Horrela, Extremadurako Kultur Etxeko, Pasialeku Jubilatuen Elkarteko, Taupada Dantza Eskolako, Fit Gipsy Dance ikastaroko eta Txindurri Txistu eta Dantza Taldeko dantzariak euren musika estiloa

bozgorailuetan jarri eta koreografiak egiteko duten trebezia erakutsi ahal izan zuten.

Zapatu goizean, Andaluziar Kultur Etxeko kideek hartu zuten lekukoa. Ilera lotutako arrosaz eta soineko tantodun koloretan bete zuten San Pelayoko parkea, Ermuko Apirileko Feriaren lehen aldia ospatzeko. Egunean zehar sevillanako aisialdirako dantzatzeaz gain, lehiaketa ere antolatu zuten. Vanesa-Vero ermuarrak eta Luisa-Lucia abadiñarrak izan ziren bikote garaileak, eta fla-

menko-dantzari *ederrenaren* saria Paula Baraja barakaldarrari eman zioten.

Iluntzean, ume eta nagusi, plazara joan ziren guztiak, Ermuko gazteek antolatutako Primavera Fest jaialdira. Bertan, robot argidun erraldoiarekin eta Anuel AAre buruhandiarrekin batera, bertako DJek –IkerB, Daaira, Danel Santiago– zein kanpokoek –Wonka, Tinny, Dgabanna, Roni Ross– nahastutako egungo reggaeton doinu sonatuenak dantzatu zituzten nekeak guztiz hartu arte.



Taupada eskolako neska-mutilak. A.G.




Fit Gipsy Dance taldeko ikasleak. A.G.



Paula Baraja izan zen flamenco-dantzari *ederrena*. ANDALUZIAR ZENTROA



Anuel AAre buruhandiarra dantza eta argi ikuskizuna egin zuen. MARCO GARCIA



IkerB eta Daaira DJ ermuarrak batera aritu ziren, B2B saioan. A.G.



Robot argiduna kalejira ateratu zuten, tokiko ostalaritzari laguntzeko. A.G.



Primavera Festen laugarren aldiak jendez bete zuten Orbe Kardinala plaza. A.G.



Hogeita hamar bat bizilagunek euren keza eta proposamenak helarazi zizkieten Oronako eta Udaleko ordezkariari. ANDER GOMEZ



Matxuratutako igogailua. A.G.

San Pelayo eta Aldapa arteko igogailua 12 astez geldirik egongo dela zehaztu du Oronak

Epe hori murrizteko alternatiba bat lantzen ari direla esan diete bizilagunei

Ander Gomez

Aldapa-Ongarai igogailuarekin egin bezala, apirilaren 1a ezke-ro epe mugagabea geldirik dagoen igogailuaren inguruko bilera informatiboa antolatu zuen Ermuko Udalak. Astelehenean egin zuten bilera, Ongarai eskolan, eta Oronako ordezkariak –Jon Garcia eta Iera Larrinaga– ere bertaratu ziren, zuzenean azalpenak emateko. Udaletik, Rosi Cid alkateordea, Julene Malaxetxebarria arkitektoa eta Placido Hernandez brigadaren arduraduna izan ziren.

Aurten igogailu horiek hamar urte betetzen dituztela kontatu zuen Garciak, eta Oronak azaroaren 1a ezke-ro daukala Ermuko horien ardura. Aldapa eta Ongarai artekoan konponketa-lanak egin ostean, San Pelayokoan zarata "arraro" bat detektatu zuten. Tailerrean konponketa-lanak egin ostean, zaratak jarraitzen zuela igarri eta makina osoa aldatzea erabaki zuten.

Aurreko enpresako arduradunak –TKE– Txinako enpresa bati enkargatu zion gaur egun dagoen makina, eta Orona haiekin jarri

zen harremanetan, berria erosteko, baina jada deskatalogatuta zegoen. Ondoren, TKErekin konponbidea topatzen saiatu ziren, baina ez zuten erantzun argirik jaso. Beste makina desberdin bat jartzea ere aztertu zuten, baina beharrezko ziren egokitzapenek kostu handiegia zekartenez, aukera hori baztertu egin zuten. Gauzak horrela, Europa mailan erreferente den Alemaniako enpresa bati makina berria eskatu diote. Azpimarratu zuten enpresa horrek berme guztiak eskaintzen ditue-

la, baita etorkizunera begira ere, baina entrega-epea hamabi astekoa izango dela.

Bizilagunen erantzuna eta proposamenak

Bizilagunek haserrea adierazi zuten egoera horren harira, eta eguneroko bizitzan sortzen dituen zailtasunak mahaigaineratu zituzten. Ongarai auzoa nagusiki adineko pertsonen osatzen dutela esan zuten, eta igogailuak beharrezkoak direla, bai eurentzat, bai mugikortasun urriko gainontzeko bizilagunentzat. Azkenaldian lau alditan pertsonak barruan trabatuta geratu direla kontatu zuten, haiek ateratzeko denbora ordubetetik gorakoa izan dela, eta modua eta teknikariaren tratua txarra izan dela kasu batzuetan. Batez ere, itxarote-denbora onartezina dela esan zuten, eta uda sasoiari

eta adinekoen kasuan arriskutsu izan daitekeela. Horregatik, konponbide egonkorra nahi dituzte, eta, bitartean, irtenbide azkarrak, arazoari behin-behinean erantzuteko.

Minibus zerbitzuaren proposamena bota zuten berriz, eta aurreko bileran alkateak gai hori lantzea onartu zuela gogora ekarri. Cidek erantzun zuen lan eta izapide askoko kontua dela, baina, egoera luzatuz gero, taxi zerbitzua jartzen saiatuko direla. Bestela, 2027rako zerbitzu orokor bat lantzen ari direla aurreratu zuen, horrelako zein bestelako kasuetarako.

Fabrikatzailearekin eta TKErekin konponbiderik aurkitu ezinik egonda, eta egungo arazoa bideratuta ere, etorkizuneko beldur, makineria osoa Oronaren izatera pasatzeko eskaera egin zuten bizilagunek. Malaxetxebarriak zalantzan jarri zuen aukera hori, mantentze-lanen ardura berriro aldatuz gero egoera bera errepikatzeiko arriskua dagoela argudiatuta. Garciak, ordea, arazorik ez litzatekeela egongo adierazi zuen, Oronak piezak hornitzeko obligazioa duela. Bizilagunei erantzunez, lantzen ari diren bigarren aukera, hain zuzen, Oronaren teknologia duen makina egitea dela esplikatu zuen. Aste honetan aurkeztu nahi diote Udalari, eta, onartuz gero, aurreikusitako hiru hilabeteko epea aste gutxi batzuetara murriztea espero dute.

Mallabiko inguruak bisitatu dituzte Artarraikoeak, irteera "polit bezain gogorrean"



ZORION ALBERDI

Zapaturako, Mallabiko baso, erreka, ur-jauzi, iturri eta gurutzak ezagutzeko ibilbide zirkularra antolatu zuen Artarrai Mendi Taldeak. Goizean goiz, zortzi mallabitar atera ziren plazatik, eta, bi kilometroko ibilalditxoan egin ostean, ermuarekin elkartu ziren Betiondon.

Berrogei laguneko kuadrilla abiatu zen mendian gora, eta, eguraldia lagun zutela, Mallabiko txoko ederrenetakoak bisitatu zituzten. Baina, antolatzaileen esanetan, gauzarik harrigarriena hamaiketakoan ikusi zuten: irteerara batutako lagunentzat eramandako 200 zezi-

na-xerrak –kilo bat– zabaldu eta berehala bukatu zituzten. Mokadurekin indarberrituta eta mendigainetik ikusitako parajeen lilura oraindik buruan, sei ordu eta erdiko ibilbidea bukatzea lortu zuten, izerdia kopetatik behera zeriela, baina aho bete hortz.

Dantzan, kantuan eta jolasean ospatu dituzte sanjurkixek

Zeruak dudatsu argitu arren, eguraldi ederra izan dute Berano Txikiko aurtengo jaietan; eta auzotarrek, antolatu dituzten ekintza, lehia eta erakustaldiekin, askotariko belaunaldiak batzea lortu dute, beste behin

Ander Gomez

Zapatuan, Gazte Alai dantza taldekoen erakustaldiak ireki zuen sanjurkixetako egitaraua. Abarak eta ezpatak airera altxatuta, zerua zulatu zuten, eta, Mallabiko bandera astinduta, hodei guztiak uxatu zituzten. Horrela, eguzkipean disfrutatu ahal izan zituzten umeek lapiko apurtzea eta auzoko halako ohiko jolasak.

Begiak zapiarekin estalita eta makila eskuan hartuta, oilarraren jokoan aritu ziren. Gexan Amesti eta Maria Gorostola izan ziren bi oilarrak topatzen lehenak. Aurten, gainera, jokoa errealitate bihurtu da: oilar batek hanka egin zuen, eta atzetik ibili ziren auzotarrak, Ortosolon harrapatu zuten arte.

Bazkalorduan ermita barrura sartu ziren guztiak, Ibai Amillategi gernikarrak eta Iruñe Basagoiti ermuarrak girotutako bertso-bazkarian bapo jaterra.

Arratsaldean, *Agarrera osterie* lasterketan lehiatu ziren umeak. Ibilbideak 550 metro zituen, eta

zazpi minutuan osatu behar zuten, gainditu gabe. 6:23 minutuko marka izan zen gehien gerturatu zena, eta, bat ez, hiru lagunek gurutzatu zuten helmuga denbora horretan: Xarles Araiztegik, Unax Berriozabalek eta Aitor Carrascosak. Saria, ordea, guztiak jaso zuten: bukatu ostean, merienda ederra zuten zain.

Bukatzeko, Begibide taldeko Iraia Sarasuak eta Ekaitz Prietok kontzertua eman zuten. Gitarrekin, trikitiarekin eta euren ahotsekin soilik, erromeria kantu klasikoak formatu akustikoan interpretatu zituzten: *Txanpon baten truke*, *Zazpi jauzi...* baita *Orain itsasoa gara* balada ere. Doinu goxookin eta ermitako aterpearen babesean elkarrengandik gertu egonik, hala amaitu ziren Berano Txiki auzoko jaiak.



Argazki guztiak ikusteko, eskaneatu QR kode hau.



Gazte Alai taldeko ezpata-dantzariak. I.M.



Elene Astarloa eta Elene Aldape, dantza emanaldia hasi aurretik. INTZA MARKINA



Gazte kuadrilla bat larrean. ANA TELLERIA



Jare Arrieta, makilarekin oilarraren otarra ukitzen. I. MARKINA



Gexan Amesti irabazlea, oilarrarekin. I.A.



Hiru belaunaldi auzoko jaietan: Ane Arregi, alaba; Begoña Aguirregomezorta, amama; eta Lorea Arregi, ama. I.M.



Ibai Amillategi eta Iruñe Basagoiti, bertso-bazkarian. GARAZI MUGARZA



Begibide erromeriako Iraia Sarasua eta Ekaitz Prieto, kontzertu akustikoa ematen ermitako aterpean. A. TELLERIA

Ikusgai daude arbasoen hilerrria den Dolmenen Ibilbideko aurkikuntzak

Maiatzaren 9ra arte izango da erakusketa zabalik; gaur, eguena, bisita gidatu eta guzti

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Dolmenen Ibilbidea ezagutarazteko eskualdean egiten ari diren ekintzen barruan, gaur, eguena, Soraluzen, Dolmenen Ibilbidearen gaineko dokumentala proiektatuko dute, Herri Antzokian, 19:30ean. Ondoren, Jesus Tapiak, Dolmenen Ibilbideko indusketak zuzendu dituen Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologoak, bisita gidatua egingo du aurkikuntzekin osatutako erakusketan.

Ezohikoa eta oparoa

Izan ere, garrantzitsua da Araneko erakusketa gelan dagoen erakusketa. Batetik, ezohikoa da, lehen aldiz atera baitituzte Gipuzkoako Diputazioaren Gordailutik aurkikuntza horiek eta herriarrek ikusteko moduan jarri; horri balioa eman dio Jesus Tapiak arkeologoak. Bestetik, erakusketa txikia izanda ere, informazio ugari transmititzen duten askotariko piezak barnebiltzen ditu.

Tapiak azaldu duenez, batzuk "arruntak dira, normalak; beste batzuk, berriz, interesgarriak". Hark dioen moduan, Dolmenen Ibilbidea gure arbasoen hilerrria izanik, ikusgai dauden aurkikuntzak hildakoekin lotuta daude. "Trikuharrietan, sepulturetan, gorpuak osorik ehorzten ziren, hainbat gauzarekin lagunduta: hildakoaren apaingarriak, lepokoak, aleak, baita eguneroko tresnak eta trasteak ere, ontzi zeramikoa, aizkorak, gezi-puntak...". Halakoen mostra esanguratsua ikusgai dago.

Giza hezurak, bereziak

Horrez aparte, giza hezurak ere badaude ikusgai. Gehienak erraustutakoak, askoz ere zailagoa izaten baita erre gabekoak topatzea, haietako gehienak usteldu egiten baitira eta erretakoak, berriz, mineralizatu; nolabait, petrifikatu. Tapiak dioenez, "errausketak ez dira ondo bereizten Euskal Herriko dolmenetan", eta hemengo aurkikuntzekin lortu dute ikustea Brontze Arokoak eta Metal Arokoak erlazionatu daitez-



Jesus Tapiak, indusketen arkeologo zuzendaria, Gizaburuagako aurkikuntzekin. U.M.Z.

keela, "gehienak errausketa-ekin lotuta" daudela.

Gainera, Araneko erakusketan bietako hezurak daude ikusgai; hain justu, erre gabekoak Agarreburun topatu zituen Jesus Tapiak eta bere taldeak, eta horiek bereziak dira. "Erre gabek dira hileta erritu zaharrek. Gero, moda aldatu eta erretzeko ohitura sartu zen", azaldu du arkeologoak.

Informazio ugari

Horren harira, ohiturekin lotuta, piezak ez ezik, aurkikuntzei esker lortu duten eta lortzeko dagoen informazioaren garrantzia ere azpimarratu du Aranzadi Zientzia Elkarteko adituak. Esaterako, arbasoen hileta ohituren gaineko informazioa ematen dute. Denbora-epe zabal batekoa, Harri Arotik Metal Arora bitarteko 2.000 urte horietako datuak dira. "Lortu duguna edo helburua da zenbat eta gehiago aztertu ea kapaz garen faseak bereizten; akaso, ez dolmen bakar batekin, baina denak elkarrekin konparatuta, agian, bai".

Metalak eta harriak

Jesus Tapiak azaldu duenez, "badira gauza bitxi batzuk. Gizaburuagan eta beste toki batzuetan aurkitutako metalek erakusten dute hileta-ohiturek segitzen dutela Harri Aroaren bukaeratik Metal Aroaren hasierara. Gainera, metalezko pieza berezi samarrak aurkitu dira hemen, adierazten dutelako

Badator 'Eusfera', umeen ingurua euskaldunago egiteko ekimena

U.M.Z. SORALUZE

Maiatzaren 7an hasi eta maiatzaren 17ra arte *Eusfera* ekimena egingo dute, 0 eta 12 urte arteko umeak dituzten familiei zuzenduta. Helburua da umeen ingurua euskaldunago egitea ekinza aktiboak baliatuta. Parte hartzeko bi modu daude: batetik, familiek etxean elkarrekin egiteko *Misioak*; eta, bestetik, *Euspazioak*, herrian izango diren tailer, lehiaketa eta jolasak.

Ekimen aktiboak

Soraluzen Aisialdia Elkarrekin-ek -Atxolin, Keixeta, Kukumixo, Pil-pilean eta Udala- dihardu antolatzen, Taupa Euskaltzaleen Mugimenduarekin koordinatuta eta ludotekarekin, gaztelekuarekin eta Katamarranekin elkarlanean. Hala, hiru leku horietan ere egingo dituzte ekimen aktiboak. Batetik, gaztelekuan, gazteen eta gurasoen arteko patata-tortilla lehiaketa izango da maiatzaren 8an. Bestetik, ludotekan, *Kalekantoian jolasian* egingo dute maiatzaren 11tik 15era. Hirugarrenik, Katamarran Haur Txokoan, *Kantu-jolas tailerra* egingo dute maiatzaren 15ean. Azkenik, maiatzaren 16an, zapatua, *Altxorraren bila sendabelar artean* jolasa egingo dute 4-12 urteko umeak dituzten familiekin.

Misioei dagokienez, berriz, *eusfera.eus* webgunearen bitartez familia bakoitzaren neurri-egindako proposamenak eskuratu ahal izango dira, etxean egitekoak.

Ia txanda guztiak beteta NA zein pasaporte zerbitzurako

Maiatzaren 6an Plaza Zaharrea egongo da nortasun agiria zein pasaporte berritzeko zerbitzu ibiltaria. 09:00etatik 13:30ak arte izango da. Aurrez txanda hartuta joan daiteke, eta eskari handia izan da. Apirilaren 28an, adibidez, zortzi txanda besterik ez zeuden libre. Guztira, 48 txanda daude zerbitzua erabiltzeko. Txanda hartzeko: 943 75 30 43, mezua bidalita *harrera@soraluze.eus* helbidera edo aurrez aurre udal bulegoan.

Soraluzen lehen aldiz izango da zerbitzu ibiltaria datorren astean, baina beste bi bider etortzeko aurreikuspena badu dagoeneko. Oraindik zehazteko dituzte datak.

Aste honetan ere, Oleatik SAPArainoko errepidea, itxita

Kontraktorik ez bada, bihar zortzi, maiatzak 8, normaltasunera bueltatuko da zirkulazioa herri erdigunean.

Aste honetako astelehenean itxi zuten Oleako zubitik SAPArainoko errepide tartea, zenbait obra egiteko. Harrezkero, semaforo bidez erregulatuta dago herri barruko zirkulazioa, goiko saihesbidean noranzko bikoitza jarrita eta Eibarrerako noranzkoko autobus geltokiak Estaziñora zein Ezozibidera lekuz aldatuta. Berez, 08:00etatik 17:00ak arte dago itxita Oleatik SAPArainoko tartea. Dena den, autobusen kasuan, obrak bukatu arte, behin-behineko geralekuak erabili beharko dituzte.

TXURITXU GOZOTEGIA
Asteleheneretik ostiralera: 08:30-11:00 eta 16:30-20:30
Larunbatak: 08:30-13:30
Igandak: 08:30-14:30

Gosariak, oga, jarrak, pastak, bombak...
Etxera eramateko zerbitzua
Tel. 943 75 24 43

Txoko

Eguneko menuak, plater konbinatuak, hamburgerak, ogi-berrieak, ogi-berrieak, raziok, pizza, gaztaria...
Enkarguak agian dira
Tel. 943 75 17 06

OSTIA HARATEGIA

Enkarguak hartzen ditugu
• Gortxo gandoak
• Etxeko tripek, bisterna, saltzita eta mingaina
Estaziñora 3
Telefonoa: 943 75 23 75

MGS Seguros

Veronica Galarraga
Gertakioa eta segunua

Asteleheneretik ostiralera: 20:00 - 23:30 eta 17:00 - 20:30
Santa Ana 13
Tel. 645 744 055

BOLIA
MIXOLIA

Pitxoak, arroz, konbinatuak
Gazte-girako festa

asigor

Terraza, kontzertuak, dardoak...
Ostiraletan pintxopotea
Gipuzkoa etorbidea 1

"Hari-musika beste modu batean bizitzeko aukera da SoraFolk topaketa"

ARKAITZ MINER MUSIKARIA

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Arkaitz Miner (Errenteria, 1976) musikari entzutetsua izango da maiatzaren 9an egingo den SoraFolk Soka Topaketako hirugarren edizioako irakasleetako bat, Quico Pugesekin eta John Prietorekin batera. Miner, besteak beste, Alaitz eta Maider, Tapia eta Leturia, Imuntzo eta Beloki eta Hiru Truku taldeetan gitarrista eta biolin jotzaile ibilitakoa da, baita Mikel Markezekin, Pettirekin eta Ruper Ordorikarekin ere.

Gaur egun, zertan diharduzu?

Orain, batez ere, Ruper Ordorikarekin nabil, harekin eman ditut urte gehien ere, eta orain, harekin eta Mikel Markezekin ere banabil. Horrez aparte, biolin irakaslea naiz Oiartzungo Herri Musika Eskolan, Soineuean. Han erakusten dut biolina, baina Euskal Herriko musika eta dantza tradizionalaren errepertorioaren norabidean; hau da, alboka, txistua, txalaparta eta dultzaina erakusten dira, eta neuk ere erakusten dut biolina euskal dantzaren errepertorioan. Oiartzungo Herri Musika Eskola izango da Euskal Herriko leku bakarretako bat edo gutxietako bat biolina norabide horretan erakusten dena. Bestalde, gitarra eskolak ematen ditut Zarauzko Musika Eskolan.

Soraluze moduko herri txiki batendako, esango zenuke SoraFolk Soka Topaketa nahikoa ekimen esanguratsua dela?

Bai, esanguratsua da, batik bat, ni nabilen musika-esparruan halako gauza bat, halako egun-pasa bat, ez delako, normalean, egiten hemen inguruan. Beste zenbait lekutan erabiltzen da formula hori, egun-pasak egiten dira, astebeteko topaketak... baina hemen ez, eta iniziatiba hori hartzea, nire iritziz, oso deigarria da.

Hari-ikasleentzat aproposa izateaz aparte, musikarientzat ere interesgarria da topaketa, ala?

Batetik, interesgarria da tailer modura, ikasteko eta ikusteko nola jotzen dugun musikariok. Eta interesgarria da, baita ere, besterik gabe, egun-pasa bat egiteko aukera delako; elkarrekin jotzeko, eta poliki-poliki, amankomunean errepertorio bat lantzeko, interesatzen zaigun errepertorio horretan sakontzeko, eta gero, aurrerago, agian, aukera sor daiteke egingo diren beste topaketa batzuetan errepertorio hori elkarrekin gehiagotan jo eta disfrutatzeko.

Zu zeu zelan animatu zara parte hartzera?

Ni ere banabilelako halako saltsetan. Gainera, ezagutzen dut inguru hori, eta ezagutzen ditut antolatzaileak ere; adibidez, Quicorekin [Puges] badut harremana, noizbehinka elkarrekin jotzen dugulako... Gertukoa iruditu zitzaidan hori guztia. Bestalde, Soraluzen ere ibilitakoa naiz; irakasle izan nintzen horiko musika eskolan, eta gertukoa zait hor aritzea.

SoraFolki dagokionez, aurreratu al daiteke ekimenaren nondik norakoek gainera ez?

Nabarmenduko nuke oso esperientzia berezia izango dela egun-pasa bat egiteko eta, oro har, hari-instrumentuak jotzen dituztenentzako; batez ere, biolin-joleentzako, biola-joleentzako eta txelo-joleentzako. Bai klasiko moduan ikasten dutenentzako zein folka jotzen dutenentzako ere. Klasikoan dabilzanen kasuan, musika beste modu batean praktikatzeko edo bizitzeko aukera izan daiteke SoraFolk, musika harremanak egiteko, beste musika errepertorio bat ezagutzeko, musika interpretatzeko eta musikarekin bizitzeko, nolabait, festa giro edo giro informala goan.

Oro har, hari-instrumentuei dagokionez, badirudi Euskal Herrian osasuntsu dagoela egoera, ezta?

Euskal Herriari dagokionez, biolin-jole, biola-jole eta txelo-jole asko egongo dira, denak musika eskola kontserbatorioetan ikasiko dutenak. Hori mundu bat da. Herri-musika, folk-musika jotzea, berriz, po-

"Halako egun-pasa bat ez da egiten, normalean, eta oso deigarria da iniziatiba hartzea"



Arkaitz Miner biolinarekin. ARKAITZ MINER

liki-poliki ari da zabaltzen, hedatzen. Harekiko interesa sortzen ari da biola, biolina eta, oro har, hari-instrumentuak jotzen dituztenen artean. Folk-musika eta herri-musika jotzen dugunok ere formazio klasikotik gatoz, eta jendeak interesa jartzen du deskubritzen duenean musika beste modu batera bizitzen dela, beste gauza batzuk gertatzen direla herri, folk zein dantza musika jotzen dugunean. Ikusten da badagoela halako esperientziak

"Herri-musika, folk-musika jotzea, poliki-poliki ari da zabaltzen; hedatzen ari da interesa"

bizitzeko gogoia, eta horrek poza ematen du.

Beste ezer gaineratu nahi baduzu... Lehen aldia da SoraFolken egongo naizena, eta ilusio handiz joango naiz. Badakit giro polita egongo dela eta, jende berria ezagutzeaz aparte, momentu ederra pasatuko dugula elkarrekin, festa giroan. Gainera, polita izango da kalean arratsaldean biolinekin eta beste-lako hari-instrumentuekin jotzea; hori ez da oso ohikoa hemen Euskal Herrian, behintzat; akaso, beste leku batzuetan gertatzen da hori, baina hemen, Euskal Herrian, ez; normalean, biolina antzokietan edo kontzertu leku itxietan erabiltzen da. Beraz, kalean eta, gainera, talde eder bat eginez, gertatzea esperientzia polita eta berezia izango da, baita entzuten duenarentzat ere.

Marraseko alebinen azken-aurreko partiduak, etxean, zapatuan

U.M.Z. SORALUZE

Marras Irristaketa Taldeko alebin mailako taldeak etzi, zapatua, du aurtengo denboraldiko azken-aurreko hitzordua. Gainera, etxean, Araneko frontoian, jokatu dute Marrasekoek. Zapatuan 10:00etan hasiko da alebinen liga jardunaldia, eta 13:00etarako dago aurreikusita azken partidua.

Etxeok, bi partidu

Julian Fernandezek gidaritzapean dauden Marraseko alebinek 10:00etan jokatu dute, Zaragozako Stadium Casablanca taldearen aurka, eta 13:00etan, berriz, Zaragoza All Stars taldearen kontra. Haiekin batera, zapatuko jarduna osatu dute Bizkaiko Hot Shot Etxano eta Metropolitan HC taldeek.

Zapatukoaren ondoren, berriz, 2025-2026ko denboraldiko ligako hurrengo eta azken hitzordua ekainaren 6an izango dute Marraseko hockey-jokalariek, baina oraindik ez diete zehaztu non izango den jardunaldi hori.

"Denboraldi zoragarria"

Denboraldiaren balorazioari dagokionez, berriz, taldeko arduradunek esan dute Marraseko alebinek "denboraldi zoragarria" egin dutela. "Taldea bezala jokatu dute, eta emaitzetan islatzen da hori", gaineratu dute.



Marras Irristaketa Taldeko alebinak. OSCAR CIFUENTES



Ipuin eta ilustrazio lehiaketako sari banaketa ekitaldia, udaletxean. DEBAKO UDALA



Alberto Bargos kontalariaren saioa. A.T.



Ispiluen gelan iragarri zituzten Deba 100 hitzetan sariketako irabazleak. DEBAKO UDALA



Ipuin kontaketa, Itziarren. MIMATUZ



Debako Kontalariak, Kultur Elkartean. A.T.

Rafael Bravo idazlea, *Solsticio de invierno*, *Teoría del epílogo* eta *Mañana es todavía* poesia-liburuaren aurkezpenean. ALEX TURRILLAS

Literatura eta sormena erdigunera, beste urte batez, apirileko kultur eskaintzan

Jendetza erakarri dute Liburuaren Egunaren bueltan antolatutako ekitaldiek

Izaro Aulestiarte

Askotariko ekimenak izan dira egunotan Deban eta Itziarren, apirilaren 23an ospatzen den Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira. Sari banaketek, ipuin kontaketek eta poesia ardatz

izan duten jarduerak osatu dute, nagusiki, aurtengo egitaraua.

Debako Udalak Liburuaren Egunean bertan banatu zituen eskolako VI. Ilustrazio eta ipuin sariketari eta *Deba 100 hitzetan* literatur lehiaketari dagozkien

sariak. Lehenbizikoan hamalau ikasle saritu dituzte, zazpi kategoriatan banatuta. Bigarrenean, berriz, euskarazko kategorian, Debako Nerea Zubiak jaso du lehen saria -300 euro-, *Maleta-zain erraldoia* lanarekin; bigarren

saria, 200 eurokoa, Donostian bizi den Borja Etxabe debarraren *Nire herria* idazlanarentzat izan da; eta saritu gabeko tokiko lan onenari eskainitako saria, 150 eurokoa, herrian bertan geratu da, Ane Bastidaren *Tarin-Tarin* lanak jaso baitu aitortza. Gaztelaniazko kategorian, lehen saria, 300 eurokoa, Rafael Bravo debarrak eskuratu du, *Tercio fúnebre* lanarekin; bigarren saria, 200 eurokoa, Gasteizko Vicente Arrizabalagari eman diote, *Qué hacemos con las cenizas* kontakizunari esker; eta, azke-

nik, saritu gabeko tokiko lan onenaren saria, 150 eurokoa, Iñaki Prieto debarrak irabazi du, *Kike pegatinas* lanari esker.

Egun berean, Liburutegia De-nontzat taldearen ekimenez, Alberto Bargos ipuin kontalaria izan zen Deban. Biharamunean, *Inoiz ez desagertzeko ipuina*-ren kontakizun musikatu egin zuten Itziarren. Eta, egitaraua ixteko, larunbatean ekitaldia egin zuten Kultur Elkartean, Debako Kontalarien saioa: Rafael Bravoren liburuaren aurkezpena eta poesia errezialak uztartu zituzten.

'Enarak' dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia, gaur, Burugorri gainean

I.A. ITZIAR


Gaur, apirilak 30, *Enarak* dokumentala proiektatuko dute Burugorri eraikineko lehen solairuan, 18:00etan. Eta, ondoren, solasaldia egongo da Beñat Iturrioz zuzendariarekin eta filmeko protagonistetako batekin, Jon Iturriozekin.

Diktadura frankista betean, 1967an, sortutako izen bereko

musika taldeari buruzko lana da *Enarak*. "Askatasun egarri ziren seminarista batzuek" sortu zuten taldea. Eta, dokumentalaren ekoizle Bira Produktzioak-ek gogorarazi bezala, "garaiko jendartean oraindik arrotzak ziren pop, rock eta psikodelia estiloak jotzen zituzten, euskara hutsean. Ehunka kontzertu eman ondoren, 1971n

misteriotsuki desagertu ziren, betirako".

Mende erdia igaro bada ere, abeslariaren seme Beñat Iturrioz taldearen aztarnen bila abiatu da, ornitologia, collagea eta bilaketa eszentriko bat nahasten dituen labirinto filmiko batean murgilduz. "Nahi nituen piezak batu, taldearen historia edo bilakaera berreraikitzen saiatzeko. Aztarna horien bilaketa da, nire ikuspuntutik. Lehenengo pertsonan kontaktatzen dut, abeslaria nire aita zelako", azaldu du egileak berak. Dokumentalaren



Dokumentalaren fotograma bat.

bueltan, gainera, Enaraken lehen diskoa berrargitaratu zuten 2024an (Elkar); taldearen hiru bertsio egin zituzten Amorante, Rüdiger eta Liher taldeen ekarpenarekin ondu zuten lana.

Ikus-entzunezko Argia Saria

Aurten, Ikus-entzunezko Argia saria jaso du dokumentalak, "gaia modu original eta ausartean aurkezteagatik, dokumentazio lan aberatsagatik eta euskal musikaren historia zatitxo bat txikitasantetik transmititzeko erakutsitako gaitasunagatik".

Euskal Jolasek aurten ere hartuko du parte Gipuzkoako Herriarteko Txapelketan

Klubeko palistak erremintan lehiatuko dira, final-laurdenetatik hasita

Nerea Bedialauneta Alkorta

Gipuzkoako Pilota Federazioak aurkeztu du asteburu honetan hasiko den 2026ko Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa. Aurreko astean egin zuten ekitaldia, Donostiako Kirol Etxean, eta bertan izan ziren parte hartuko duten herrietako ordezkariak; tartean, Debako Euskal Jolas Kirol Elkartekoak.

Pilotariak hiru modalitatetan lehiatuko dira: eskupilotan, gomazko paletan eta larruzko paleta eta pala motza uztartuko dituen erremintan. Aurten, parte-hartze urria dela eta, ordea, ez da zesta-puntarik izango.

Bederatzi herriren aurka

Guztira, 52 herritako 460 pilotarik hartuko dute parte txapelketan, eta horien artean izango dira Euskal Jolaseko ordezkariak. Debako taldeak, hain zuzen,

erreminta modalitatean jardungo du. Lehiaketa final-zortzirenetatik hasiko da, eta hamar herri elkartuko dira bertan.

Debako palistek, ordea, final-laurdenetan ekingo diote txapelketari, Lazkaoren aurka.

Joaneko partida maiatzaren 22-24ko asteburuan jokatu da, Lazkaon, eta itzulerakoa aste-bete geroago izango da, Aldats pilotalekuan.

Finala, berriz, ekainaren 21erako dago aurreikusita.



Gipuzkoako Herriarteko Txapelketaren aurkezpena. GIPUZKOAKO PILOTA FEDERAZIOA

Sarasketa nagusi xake azkarrean

Oier Sarasketa Irastortza zumaiarrak irabazi zuen igandean, hilaren 26an, Ispiluen gelan jokatu xake azkarreko txapelketa. Jose Manuel San Martin eta Iker Garcia sailkatu ziren bigarren eta hirugarren. Epaimahaiak xakelariak erakutsitako "maila handia eta trebetasuna" nabarmendu ditu.



DEBAKO UDALA

Zabalik dago Ostolaza Sarietara hautagaitzak aurkezteko epea

Debako Kultur Elkartek Ostolaza Sarietara hirugarren ediziorako deialdia egin berri du, "udalerriko kultur jarduera aberasten laguntzen duten herritarren edo erakundeen lana aitortzeko eta aintzateste" helburuarekin.

Epaimahaiak lau sari banatu ditu aurten ere -Sortzaileak, Dinamikak, Ezinbestekoak eta

Hazia Saria-, eta horietarako hautagaiak edozein herritarrek proposatu ahal izango dituela azaldu dute. Proposamenak maiatzaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira, Kultur Elkartean bertan -postontzian lagata- edo Internet bidez -labur.eus/ostolazasariak estekako formularioa beteta-.

Aurreratu dutenez, sari banaketa ekitaldia ekainaren 13an izango da, larunbatez, Kultur Elkartek Bazkidearen Eguna ospatzeko antolatuko duen egitarauaren baitan.

Batzoki
Asteburuetako menua,
plater konbinatuak...
Plaza Zaharra (Soralezu) Erreserbak: 638 91 15 97

Barrena
DEBAGARRIENKO KOMUNIKAZIO TALDEA
Jarri ezazu zure publikitatea
BARRENA astekarian
edo
www.barrena.eus 943 743 704
webgunean 688 769 657

Altxa Buruak komunikazio-ohiturei buruzko hausnarketarako dei egin du

Udalarekin elkarlanean, galdetegi bat zabaldu du eragileen artean; bi saio praktiko ere iragarri ditu, Telmo Lazkanorekin

I.A.

Altxa Burua Deba-Itziar taldeak komunikazio-ohiturei eta digitalizazioari buruzko hausnarketara gonbidatu ditu herritarrik. Horretarako, Debako Udalarekin elkarlanean, galdetegi bat zabaldu du tokiko eragileen artean, eguneroko errealitatea ezagutzeko asmoz. Hala, saio praktikoak iragarri ditu, Telmo Lazkano adituarekin, maiatzaren 4rako eta 11rako.

Taldearen esanetan, "komunikatzeko moduak asko aldatu dira; bereziki, telefono mugikorren eta sare sozialen erabilerarekin". Eta, testuinguru horretan, beharrezkotzat jo dute eragileen errealitatea ezagutzeko: "Zein tresna erabiltzen dituzten, nola komunikatzen diren kideekin -bereziki, haurrekin eta nerabeekin- eta zein erronka edo zailtasun izaten dituzten

egunerokoan". Helburu horrekin zabaldu dute, hain zuzen, inkesta, jasoko duten informazioa "oso baliagarria" izango delakoan. "Batetik, egoera ezagutzeko eta hobeto ulertzeko balioko digu; bestetik, aurrerago antolatuko den saio baterako oinarria izango da", azaldu dute.

Gaur, apirilak 30, da inkesta betetzeko azken eguna; Internet bidez egin behar da, labur.eus/altxaburuainkesta estekan.

Bi astelehenetan

Telmo Lazkano adituarekin egingo dituzte saio praktikoak, maiatzaren 4an lehenengoa eta 11n bigarrena; gaztelekuan batuko dira, 18:30ean. Aurreratu dutenez, elkarrekin hausnartu eta komunikazioa eta digitalizazioa zentzuz eta modu praktikoan lantzeko aukerak aztertuko dituzte bertan.

Bioetikari buruzko hitzaldia antolatu du Arbil Elkarte Sozialak

Datorren ostegunean, maiatzak 7, bioetikari buruzko hitzaldia hartuko du Debako Kultur Elkartek. Arbil Elkarte Sozialak antolatu du saioa, Caixabank, Kide, Goimek eta Danobatekin lankidetzan, eta Itxaso Marti Donostia Ospitaleko neuropediatra ezaguna izango da gonbidatua. 11:00etan hasiko da, eta saioa herritar guztientzat

irekia izango dela nabarmendu dute.

Donostialdea ESiko Etika Asistentzialeko Batzordeko presidentea da gaur egun Itxaso Marti, eta, antolatzaileek zehaztu dutenez, aurrerapen mediko eta sozialek bioetikaren ikuspegitik planteatzen dituzten erronkei buruz ariko da solasaldian. Bestiak beste, hauek izango ditu hizpide: zelula amak eta ingeniari genetikoak, adimen artifiziala medikuntzan, zahartza-roa eta bizi-kalitatea, eta tratamenduen eskuragarritasuna.

LAGUNAK
colaboración textil hogar

Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurrina. Jantzigintzarako makina bereziak ditugu, edozein ehun konpondu ahal izateko. Puntuzko ehunak, tximindularitzako mailotak eta kulotek, larrua, zeta eta aber luze bat.

Komertzioekin lan egiten dugu
(etxeke ehungintzekin ta jantziekin) **TARIFA BEREZIAKI!**

San Roke kalea, 20 - ELGOIBAR - 943 744 457 / 685 756 978
www.textillagunak.com

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

ESKAERAK

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka, asteburuetan edota etxeko langile moduan. 643 86 05 41

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan zein ospitalean. 642 85 28 54

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. Asteburuetan ere lan egiteko prest nago. Ospitalean zaintza lanak ere egiten ditut. 631 42 56 86

Elgoibar. Etxebizitza, atari, elkarte eta tabernetan garbiketa lanak egingo nituzke. Esperientzia. 688 75 86 30

Elgoibar. Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Berehala hasteko moduan nago. Titulu soziosanitarioa daukat, eta paperak, legez. 641 32 24 73

GARAJEAK

SALGAI

Elgoibar. Garaje marraduna salgai, San Roke 5 auzoan, Telefonicaren eraikin alboan. 2,7x3,9 metrotan banatutako 10,53 metro koadroko tartea. kobxa garbitzeko gunea dauka. Prezioa: 11.900 euro. 679 33 24 07

ZORION AGURRAK



SORALUZE
Bittor eta Luken
Zorionak! Muxu handi bat, etxekoen partez.



ELGOIBAR
Luken
Zorionak, Luken maitea, amamaren eta Elgoibarko familiaren partetik. Besarkada handi bat; asko maite zaitugu.



ELGOIBAR
Jakes
Zorionak, Jakes maitea, amamaren eta Elgoibarko familiaren partetik. Besarkada handi bat; asko maite zaitugu.



SORALUZE
Leire
Zorionak, polit hori, apirilaren 22an 7 urte egin zenituelako. Muxu handi bat!



SORALUZE
Maira
Zorionak, Maira! Asko asko maite zaitugu! Iron, aita eta amatxo.

Iragarkia jartzeko

943 744 112

sailkatuak@barrena.euswww.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkeneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- BARRENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu.

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurrak helbidean sartu.
- Mezua bidali herrietako erredakzioetara edota Whatsappez 688 65 56 58 zenbakira edo e-postaz zorionagurrak@barrena.eus. Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta testua.
- Etorri edo deitu gure betiko egoitzetako batera.



Barrena

BATZEN GAITUENA

barrena.eus/egin-kide

eduki bereziak, zozketak,
deskontuak, abantailak

egin zaituz
Barrenakide!



ELGOIBAR

Patxi Zialtzeta Arregi

Beraseta



2026ko apirilaren 26an hil zen, 91 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunera agertu izana ere.

Barrena eskelak: zabalkunde handiena Debarrean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - barrena@barrena.eus

Bulegoak:
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304

ETXE BERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)
635 756 295 - 629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 | barrena@barrena.eus

OSTEGUNA 30

- **DEBA Comillasera irteera** Arbil Elkarte Sozialak antolatuta. Hondartza sarreran, 08:30ean.
- **DEBA Menopausiari buruzko tailer informatibo praktikoa** Ispiluen gelan, 18:00etan.
- **ITZIAR 'Enarak' filmaren proiektzioa** Proiektzioaren ondoren, Beñat Iturrioz

zuzendariarekin eta protagonistetako batekin (Jon Iturriozekin) solasean aritzeko aukera izango da. Burugorri eraikineko lehen solairuan, 18:00etan.

- **SORALUZE Ikus-entzunezkoa eta bisita gidatua: 'Dolmenen Ibilbidea'** Aurkikuntza arkeologiko berriei buruzko ikus-entzunezkoa proiektatuko da eta Jesus Tapiak bisita gidatua egingo du. Herri Antzokian, 19:30ean.



SORALUZE Bisita gidatua: 'Dolmenen ibilbidea'

LARUNBATA 2: Dolmenen Ibilbide gidatua Karakate-Iruruzteta mendilerroan zehar da, Soraluze, Elgoibar eta Bergarako udalerrak lotzen dituen Elosua-Plazentziako Estazio Megalitikoa zeharkatuz. 9 kilometroko ibilbidean 5 monumentu megalitiko bisitatzeko dira.

OSTIRALA 1

- **SORALUZE Erakusketa: 'Dolmenen Ibilbidea'** Dolmenen Ibilbidean egindako indusketa arkeologikoetan aurkitutako hainbat elementu izango dira ikusgai erakusketan. Erakusketa aretoan, 18:30ean.

LARUNBATA 2

- **ITZIAR Bisita gidatua: 'Lastur familian'** Iraupena: 01:30. Bisitari kopuru mugatua: 30 lagun. Beharrezkoak: jantzi eta oinetako egokiak. Prezioa 10 euro –12 urteik beherakoentzat, 5—. Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko: geoparkea.eus. Lasturko San Nikolas plazan, 11:00etan.

- **ERMUA Borrokan Barrena Eguna** Ermuko plazan: 11:00etan mahai-ingurua. 12:15ean pilota txapelketa. 13:15ean grafiti-tailerra. 14:30ean bertso bazkaria. 18:00etan kirola erakustaldia. Merkatu plazan: 21:00etan DJ gaua. Antolatzaileak: Deba bailarako Itaia eta Debabarreneko GKS.
- **DEBA Bisita gidatua: 'Debatik Zumaiara itsasontziz'** Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko: Geoparkea.eus. Irteera puntua: Anes Arrindia pasealekuan (pantalana), 17:30ean.

IGANDEA 3

- **SORALUZE Mendi ibilaldia: Iruruzteta Eguna** Aisialdia Elkarrekin

lantaldeak antolatuta. Estaziñoan, 09:00etan.

- **ELGOIBAR Santa Kurutz eguna, San Roken** 10:00etan meza San Rokeko ermitan, eta ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte.
- **SORALUZE Iruruzteta Eguna** Soraluze eta Osintxuko herritar talde batek antolatuta. Erromeria egingo da. Iruruztetan, 11:00etatik 14:00etara.

ASTELEHENA 4

- **SORALUZE: Tailerra: 'Aurretiazko borondateak'** Pertsona gaixoak erabakietan parte hartzeko gaitasuna galtzen duenean, ematen zaion osasun-arreta alde aurretik adierazita uzten duen dokumentua lantzeko tailerra. Kalebarren 8an, 10:00etan.
- **DEBA Pentsiodunen mobilizazioa** Foruen plazan, 12:00etan.

- **DEBA Diabetesaren prebentzio eta eguneroko kudeaketari buruzko tailerra** Arbil Elkarte Sozialak antolatuta. Osakidetzako profesionalen emango dute. Arbil elkartearen, 16:00etan.
- **SORALUZE Ikastaroa: 'Perkusio herrikoia'** Musika Eskolak antolatuta. Musika Eskolan, 17:00etan.
- **SORALUZE Tailerra: 'Musika goiztiarra'** Musika Eskolak eta Katamarran ume-txokoak antolatuta. Katamarran ume-txokoan, 17:00etan.
- **ELGOIBAR Emakume artisten zikloa** Louise Bourgeois izango da protagonista. Lila emakumeen etxean, 17:30ean.

ASTEARTEA 5

- **SORALUZE Ikastaroa: 'Musicscore'** Musika Astearen programazioaren



ITZIAR XVI. Erromeria Eguna

LARUNBATA 2: 11:00etan kalejira eta dantzak herriko txokoetan. Goizean zehar Zubietako Joaldunak. 13:00etan mokadua plazan eta Trikitixa Eskolako ikasleen emanaldia. 14:00etan kalez kale. 14:30ean herri bazkaria frontoian. 18:00etan erromeria plazan: Hernaniko Txilibita fanfarrea, Hernaniko Dultzaineroak, Enaitz eta Erkizi, Arkaitz Allur eta Haritz Garmendia, Jagoba Uranga eta Maddalen Arzallus eta Ixamatarrak. 22:30ean gau erromeria trikitilarekin Tranpapean. Egunean zehar Txankartaren argazkien erakusketa Tranpapean.



DEBA Komunikazio-ohiturei eta digitalizazioari buruzko saio praktikoa

ASTELEHENA 4: Altxa Burua Deba-Itziar taldeak antolatuta. Hizlaria: Telmo Lazkano. Gaztelekuan, 18:30ean.

Zure produktu edo zerbitzuak ezagutarazi nahi?

Ipini publizitatea Barrena astekarian edota Barrena.eus webgunean

publi@barrena.eus | 688 76 96 57



10.500 ale astero
+120.000 bisita hilean



MENDARO Hitzaldia: 'El arte paleolítico en el valle del Deba'

OSTEGUNA 7: Udalaren laguntzarekin, EHUK eta Suharri elkarteak arkeologiari eskainitako Arkeosaioak hitzaldi zikloko bigarren hitzaldia da: *El arte paleolítico en el valle del Deba*. Cesar Gonzalez Sainz arkeologoak egingo du, gazteleraz. Udaletxeko udalbatza aretoan, 18:30ean.

baitan, Sorluzeko Musika Eskolak antolatutako ekintza. Musika Eskolan, 17:00etan.

- **ITZIAR Itziarko irakurketa taldea – haurrak eta gazteak–: 'Joemak eta polasak'** Iñigo Astiz eta Maite Mutuberriaren *Joemak eta polasak* poesia ilustratua landuko dute saioan. Alaine Agirre idazleak gidatuko du. Burugorri eraikineko 2. solairuan, 17:30ean.
- **ERMUA Haurrentzako tailerra: 'Naturarekin jolasean'** Naturako elementuak erabilia objektuak sortuko dira. 2019an eta 2020an jaiotako haurrei zuzenduta, euskaraz. Liburutegiko hirugarren solairuan, 17:30etik 18:30era.
- **ITZIAR Itziarko irakurketa taldea (helduak): 'Bisita'** Mikel Pagadiren *Bisita* lana landuko dute saioan. Alaine Agirre idazleak gidatuko du saioa. Burugorri eraikineko 2. solairuan, 19:00etan.
- **ERMUA 'Viñetas' komikien irakurketa kluba** *Fahrenheit 451* (Victor Santos). Liburutegian, 19:00etan.

ASTEAZKENA 6

- **SORALUZE Tailerra: 'Tecnologia'** JendartEkin

proiektuaren baitan antolatutako tailerra. Kalebarren 8an, 10:00etan.

- **SORALUZE Ipuin musikatua.** *Anabasa Pentagramaean*. Goizez, 11:30ean, eta arratsaldez, 19:00etan, Herriko Antzokian.
- **ERMUA 'Lurraldearen zaindariak: Gaztelako eskakume nobleak eta estrategia adimendunak'** Itziar Aloria Jarautak zuzendutako hitzaldia. Doan. Lobiano Kulturgunean, 17:30ean.
- **SORALUZE Errigorako produktuen banaketa.** Gaztetezan, 18:00etatik 19:30era.
- **ERMUA 'Un capítulo más' gaztelerako irakurketa kluba.** *Últimos testigos* (Svetlana Alexievich). Liburutegian, 19:00etan.
- **ELGOIBAR Epeletan literatura tailerra** Miren Agur Meaberren *Amorante frantsesa* liburua landuko dute, Ainhoa Aldazabalekin. Gotzon Garate Udal Liburutegian, 19:30ean.

OSTEGUNA 7

- **DEBA Hitzaldia: 'Bioetika' (Itxaso Marti)** Donostia Ospitaleko Itxaso Marti neuropediatrak *Bioetika, aurrerapen mediku eta sozialen aurreko erronkak* izeneko hitzaldia egingo

du, Arbil Elkarte Sozialaren ekimenez. Debako Kultur Elkarteak, 11:00etan.

- **ERMUA Sorginak: iruditeria, historia eta boterea** Tailer horretan modu dinamikoan ikasiko dira zein den sorginen jatorri historikoa eta zeintzuk diren sorginen inguruan eraikitzen diren klase eta genero desberdintasunak. Emakumeen Topalekuan, 17:30ean.
- **ELGOIBAR Egur Arte Tailerreko ikasle nagusien erakusketa** Kultur Etxeko erakusketa gelan. Astelehenetik larunbatera, 18:30etik 20:30era.
- **DEBA Baso Bete Zientzia hitzaldiak** Bi hitzaldi egongo dira, Ibon Aranberriren –Kimikan doktorea– eta Egoitz Kondoren –ingeniari industrial– eskutik. Pintxo-potea eskainiko dute. Debako Kultur Elkarteak, 19:00etan.
- **ELGOIBAR Idazlan lehiaketako sari banaketa** Aita Agirre kulturguneko areto nagusian, 19:00etan.
- **ELGOIBAR Isiltasun Eskolaren topaketa, Jose Cruz Igartuarekin** Aita Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:00etan.
- **ERMUA Santixau jaietako kartel lehiaketa** Lehiaketan parte hartzeko azken eguna. Informazio gehiago: www.ermua.eus.

OSTIRALA 8

- **SORALUZE Tailerra: 'Banku eragiketak'** Sorluzeko Nagusien Kontseiluak Kontsumobiderekien elkarlanean antolatutako tailerra, pertsona nagusiei zuzenduta. Kalebarren 8an, 10:00etan.
- **DEBA Odol ematea** Deban Aurrez txanda eskatzea beharrezkoa da. Horretarako, sartu gotatanta.eus webgunean edo idatzi 623 91 23 03 telefono zenbakira. Ipar kaleko Luzaro eskolan, 16:30ean.
- **SORALUZE Eusfera: patata-tortilla lehiaketa, gazteteak gurasoen kontra** 10-12 urte bitarteko gazteteak gurasoen kontra patata-tortilla lehiaketa egingo dute. Gaztetelekuan, 16:30ean.
- **MENDARO Errigorako produktuen banaketa.** Udaletxeko atariko ate berdean, 18:30etik 20:00etara.



ERMUA Antzezlanak: 'Desobedienteak 18/98'

OSTIRALA 8: *Desobedienteak 18/98* antzezlanak konkretua unibertsal egiten du, eta desobedientzia zibilaz hitz egingo digu, ez demokraziarekin eta haren printzipioekin bateragarri den tresna gisa bakarrik, baizik eta demokrazia babesteko ezinbesteko erreminta gisa. Joxemi Zumalabe Fundazioaren kasua eta 18/98 sumarioaren barruko auzipetzea abiapuntutzat hartuta, antzerki-fikzio hori prozesu judizial horretan oinarritzen da, eta, horrez gain, desobedientzia zibilaren historian eta haren azken aurrerapenetan murgiltzeko bidaia bat eskaintzen digu. Sarrera: 10 euro. Ermua Antzokian, 20:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

30 EGUENA Barrenetxea / A. Zalduegi / A.M. Baz
1 BARIKUA Oruesagasti / H. Burgoa / I. Ugarte
2 ZAPATUA Garitaonandia / H. Burgoa / I. Lecumberri / *I. Ugarte
3 DOMEKA Garitaonandia / H. Burgoa / I. Lecumberri
4 ASTELEHENA Arriola / Lasuen-Elezgaray / A. Alcalá
5 MARTITZENA Fernandez / Lasuen-Elezgaray / I. Ugarte
6 EGUAZTENA Yudego / Lasuen-Elezgaray / A.M. Baz
7 EGUENA Oruesagasti / Lasuen-Elezgaray / M. Alves
8 BARIKUA Barrenetxea / L. Apraiz / I. Lecumberri

*09:00-13:30

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:

Deba: 09:00-13:45 / 16:30-19:30
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00
Mutriku: 09:00-13:30 / 16:45-20:00
Itziarko botikina: 09:00-12:30
GUARDIA ORDUTEGIAK
Egunez: 09:00-22:00
Gauetz: 22:00-09:00
Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 20 61 00)
Larunbatak:
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
Deba-Mutriku: 09:30-13:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
Igandeak eta jaiegunak: Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK

DEBA A. ZALDUEGI: Lersundi, 20 - 669 26 22 01
DEBA H. BURGOA: Astillero, 2 - 667 33 88 90
ELGOIBAR ARRIOLA: Santa Ana, 1 - 943 74 01 40
ELGOIBAR BARRENETXEA: Errosario, 26 - 943 74 12 77
ELGOIBAR GARITAONANDIA: Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
ELGOIBAR YUDEGO: San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
ERMUA A.M. BAZ: Zearkale 2 - 943 03 17 03
ERMUA M. ALVES: Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
ERMUA A. ALCALÁ: Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
ERMUA I. LECUMBERRI: Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
ERMUA M.I. UGARTE: Goienkale, 11 - 943 17 05 26
MALLABIA E. ARRONATEGI: Mallazpi z/g - 943 17 24 14
MENDARO FERNANDEZ: Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY: Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
MUTRIKU L. APRAIZ: Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
SORALUZE SOTO: Rekalde, 1 - 943 75 16 38
SORALUZE ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

ZINEMA

ELGOIBAR

HERRIKO ANTZOKIA
'Altas capacidades'
 Ostirala, 1: 19:00
 Larunbata, 2: 19:00, 22:15
 Igandea, 3: 19:00
 Astelehena, 4: 21:00
'La sombra de mi padre' (Ongarri zinekluba)
 Asteazkena, 6: 21:00
'Incontrolable'
 Ostirala, 8: 19:00

ERMUA

ERMUA ANTZOKIA
'Águilas de El Cairo' (Zinekluba)
 Osteguna, 30: 20:30
'Incontrolable'
 Larunbata, 2: 19:30
 Astelehena, 4: 20:30
'Kraken'
 Larunbata, 2: 22:00
 Igandea, 3: 19:30
'Ninja laukiduna'
 Igandea, 3: 17:00
'La Grazia' (Zinekluba-Jatorrizko bertsioan)
 Osteguna, 7: 20:30

DEBA

KULTUR ELKARTEA
'Downton Abbey'
 Igandea, 3: 19:00

ITZIAR


BURUGORRI ERAIKINA
'Enarak'
 Osteguna, 30: 18:00

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA
'El diablo viste de Prada 2'
 Larunbata, 2: 17:00, 19:45, 22:30
 Igandea 3, 17:00, 20:00
 Astelehena 4, 19:30
'Incontrolable (I swear)'
 Larunbata, 2: 17:00, 19:45, 22:30
 Igandea 3, 17:00, 20:00
 Astelehena 4, 19:30
'Boulevard'
 Larunbata, 2: 19:45, 22:30
 Igandea 3, 20:00
 Astelehena 4, 19:30
'Mi robot favorito'
 Larunbata, 2: 17:00
 Igandea 3, 17:00

AZKEN BERBA

Txikienetik handienera



JON LAFUENTE

Asko gara oraindik Artemis II misioarekin txunditurik gaudenak, teknologiaren ahalmenaren erakusgarri izan dena. Zerura begiratu eta espazioaren esplorazioarekin amestera eraman gaitu, gure ohiko eskalatik haratago.

Handienak liluratzen bagaitu ere, txikienean ere bada zer miretsi. Galaxia batean ehunka mila milioi planeta egon daitezke; baina DNA molekula bakar batean ehunka mila milioi atomo, eta, gure baitan, milaka milioi DNA molekula.

"Etorkizunean ere, aurrerapauso handienak txikienean egon daitezke"

Txikienarena izan da, hain zuzen ere, gizakiok urrunago eraman dugun muga. Gaur egun gai gara materia atomoz atomo aztertu eta manipulatzeko. Honen erakusgarri dira, besteak beste, espazio-ontzien kontrolean ezinbestekoak diren mikrotxipak.

Paradoxikoki, beraz, espazioaren konkista infinitesimalen hasi da: Ilargira iristeko, lehenik eta behin, atomoak menperatu behar izan ditugu. Etorkizunean ere, aurrerapauso handienak txikienean egon daitezke, material berriak edo energia-iturri eraginkorragoak garatzera eraman gaitzaketenak.

Buruia altxatzean espazio mugagabea ikusten dugu, baina hemen behean ere bada aukera mugagabeak dituen espazio bat. Richard Feynman-ek esan bezala, "atomoen unibertso bat, atomo bat unibertsoan" baino ez gara.

BUKATZEKO

Gaueko erromeria berreskuratuta, Itziarko Erromeria Eguna bere erroetara itzuliko da

Berritasunen artean, Txankartari eskainitako argazki erakusketa ere izango da

Nerea Bedialauneta Alkorta ITZIAR
Gainean da Erromeria Eguna: etzi, maiatzaren 2an, ospatuko dute, Itziarren. Ohiturari eutsiz, maiatzeko lehenengo larunbatean egingo da, Andutz Dantza Taldearen ekimenez eta Itziarko Auzo Udalaren babesarekin. Hamaseigarren edizioa izango da aurtengoa, eta antolatzaileek jende ugari espero dute. Euskal musikaz eta dantzaz gozatu nahi duen edonori egin diote joateko gonbita.

Egitarauari dagokionez, aurtengo hitzordua erroetara itzuliko da, berritasun nagusi batekin: gaueko erromeria berreskuratuko dute, urte luzez erroerrien topaleku izan zen gunean. "Urte batzuetan gaueko dinamika utzita egon da, baina berriz piztu nahi izan dugu, kanpotik datorren jendeak ere festaz gozaten jarraitzeko eta eguna gauera arte luzatzeko aukera izan dezan", adierazi dute antolatzaileek.

Azken aldiz 2016an egin zuten plaza ondoko gaueko erromeria. Ondoren, Bikain eta Burugorri inguruan egin izan dira saioak, baina aurten, Tranpapea berri-ondoren, bertara itzuliko da. Hala, 22:30ean hasita, trikitilariak girotuko dute plaza ondoko espazioa, eta txosna jarriko dute, "ordu txikiak arte festa ziurtatuta" egon dadin.

Eguna kalejira eta dantzekin hasiko da. 11:00etan, herriko kaleetan barrena ibiliko dira Hernaniko Txilibita Fanfarrea,



Antolatzaileak, aurtengo kartelarekin. ANDUTZ DANTZA TALDEA

Hernaniko Dultzaineroak, Itziarko Trikitixa Eskolako trikitilariak, Vianako Erentzun Dantza Taldea eta Itziarko Andutz Dantza Taldeko kideak. Aurten, lehen aldiz, Markina-Xemeingo Zerutxu eta Lekeitioko Etorkizuna dantza taldeak ere batuko dira. Guztira ehun bat dantzari elkartuko dira; horietatik 60 inguru, itziartarrak. Goizean, gainera, Zubietako joaldunak ere ibiliko dira herrian zehar.

Aukera beganoa ere bai

13:00etan, mokadua eskainiko dute plazan, Itziarko Trikitixa Eskolako ikasleen emanaldiarekin lagunduta, eta, ondoren, kale giroak jarraipena izango du.

14:30ean, herri bazkaria egingo dute Zabalsoro frontoian; urtero 300 lagun inguru elkartzen dira, eta aurten lehen aldiz aukera beganoa ere eskainiko dute.

18:00etan berrekingo diote egitarauari; ordu horretan, erromeria giroak hartuko du frontoia, trikitilarien eskutik: Enaitz eta Erkizi, Arkaitz Allur eta Haritz Garmendia, Jagoba Uranga eta Maddalen Arzallus eta Ixamatarrak ariko dira dantzarako gonbita egiten, fanfarrearen eta dultzaineroen laguntzarekin. Urtero bezala, larrain dantza ere egingo dute.

Ospakizunak iraganari begiratzeko tartea ere eskainiko du. Hasierako erromeria egunei

Antolatzaileen esanetan, aurten "ordu txikiak arte festa ziurtatuta" egongo da

Egitaraua

- **11:00** Kalejira eta dantza herriko txokoetan.
- **Goizean**, Zubietako joaldunak.
- **13:00** Mokadua plazan eta Trikitixa Eskolako emanaldia.
- **14:00** Hernaniko Txilibita fanfarrea, Hernaniko dultzaineroak, Zubietako joaldunak eta trikitilariak kalez kale.
- **14:30** Herri bazkaria frontoian.
- **18:00** Erromeria plazan.
- **22:30** Gau erromeria trikitilariaren Tranpapean.
- **Egun osoan** Txankartaren argazkien erakusketa Tranpapean.

keinu eginez, argazki erakusketa antolatu dute, eta bertan presentzia berezia izango du Antonio Buenetxea *Txankarta* (Itziar, 1922-2001) soinu-jole itziartarrak.

60 argazki inguru

Mende laurden igaro da zendu zenetik, eta haren figura gogora ekarri eta omentzeko asmoz prestatu dute egun osoan ikusgai egongo den erakusketa; hain zuzen ere, Tranpapean egongo da, "Txankartak igandean jotzen zuen toki be-rean".

60 bat argazki izango dira ikusgai. Gehienak Txankartarenak izango dira, eta, horiekin batera, Itziarko eta inguruko erroerietako irudiak, baita hasierako erromeria egunetako argazki batzuk ere.

Barrena
BATZEN GAITUEN
DISTANTZIA



**HEDABIDEKIN
ERE BAI**